

uk

159. zenbakia / 2009ko ekainaren 22a





NAZIOARTEKO ARGAZKI JAIALDIA. IRAILAK 10 - URRIAK 11 2009
 FESTIVAL INTERNACIONAL DE FOTOGRAFIA. 10 SEPTIEMBRE - 11 OCTUBRE 2009



UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Matane Nerekan, Ainhoa Lores
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zurine Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARRERMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldikari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAEK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBANKIA: 900 940 111

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Serante laino artean.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Basagolti, Getxo.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Andere Vidal.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Getxo Blues Jaialdia.
- 28. ARGAZKIA. Arrune baserria.
- 30. BERBETAN. Ines Osinaga (Gose).
- 34. FOTOGRAFIA. Juan Luis Markaida.


KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Gaurik laburrena.
- 43. MUSIKA. Getxo Jazz 2009. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. EHU X. Bilbo Arte eta Kultura ikastaroak. Erreseinak.
- 45. KIROLAK. Seven tokata txapelketa, Getxo Rugby.
- 46. ELKARRIZKETA. Hamaika Bilbo Telebista.

AMAITZEKO

- 49. NORA JOAN. Rumore, Larrabasterra.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. "Los Tangoreños" kartzotako banda, Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Itziar Ituño.

Azala: Juan Luis Markaida



30 Ines Osinaga

Berbetan

Bi diska kaleratu dituzte Gose taldeko lagunek. Zeren gose diren kontatu digu Osinaga abeslariak.



11 Andere Vidal



54 Itziar Ituño

MÉGANE EMOTION

10.600€*

1.000€-ko
deskontua
onkorrako edozein
inbentari gogorren**

ZUK BENA NAHI BUZULAKO

RENAULT OCASIÓN

* PEP (beste merkaturik gabe) Dacia, Renault eta beste markak barne hartuta. ** EU urte bakoari gogorretarako bostak ez dira.

www.tillotin.com

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Energia

Euskal Herria da ekaina honetan, Europako Energiaren 'hiriburua'. Milaka aditu eta enpresa arduradunek energia barrien eta barriztagarren oraina eta etorkizuna aztergai edukiko dute. Leloa argi: konponbideak, ez arazoak. Izan ere, egia esanda, energiarena, arazo latza bihurtzekotan dago.

Mundu osoko herrien garapenak, etorriko zaigun energia barriakaz zerikusi handia edukiko du, aldaketa klimatikoaz ahaztu barik. Erronka garrantzitsua da, eta zelako erantzuna ematen diogun arabera, gizakien historia modu baten edo oso desberdin baten idatziko da.

Euskal Herrian energia barriztagarren abangoardia gara. Itsas olatuak, mareak, haizea edo eguzkiaren pritzinak aprobetxetako tramankulu onak asmatzen omen ditugu,... ditutze. Harro sentitzeko modukoa. Penagarria, aitzitik, komunikabideok ematen diogun oihartzuna. Politikeriak gurago. Non daude benetako debateak?

Iritzia

Hemen amaitzen da krisiaren gaineko hausnarketa sakona. Landu beharreko zenbait gaitasuni buruz berba egingo digute agurrean.

Krisiaz baliatu (III)

Hain aldaketa ikaragarriak diren gizarte honetan, eskura dugun informazioak informazio hori jaso, prozesatu eta geure egiteko dugun gaitasuna erabat gaintzen du. Horrek guztiak neke fisiko eta mentala sortu eta arreta bizi edo luzea dakarten zereginak

«Egokitzen jakitea da gakoa»

eragindako estresaren aldi kritikoa dakar. Burmuina erabiltzen ikasten ez denez, ez dago oldozmen estrategikorako eta ikasketarako ikasbide egokirik. Aipatutako ikasbide horien gabeziak burmuinaren gaitasun sortzailearen probetxurik eza dakar eta horren ondorioz burmuinaren indarra erabili beharra. Egokitzen jakitea da gakoa. Garapen intelektualarako eta ikasketa aurreratueterako ikasbideak edozein ikasle, langile, profesional edo exekutiboren etekin intelektuala gehitzeko teknikak dira eta ondoren zehazten diren sei zutabe tematikotan oinarritzen dira:

Irakurketa erraz ulerkorra: Jakintza arlo desberdinetan, egungo berriak biharko eza-gutza zaharkituan eraldatzen dira. Informazioaren aro berrian, testuak chuneko

geometrikoan hasiz doazen bitartean eta gure irakurketa-trebetasunak berdintsu jarraitzen duten edo, gutxitzen doazen heinean, egunak 24 ordu besterik ez du. Aldaketa bizkordun aldi hauek, etenbako eguneratze iraunkorra eskatzen dute.

Oroimen eta kontzentrazio garapena: Ez dago oroimen txarrik edo onik, dena izaten da antolaketaren araberkoa. Proposatzen dugun ikasbideak, burmuinaren ezker hemisferioarena den ideien asoziazioa eskumakoan nagusi den irudi mentalen ekoizpenagaz elkartuz optimizatzen den erretentzio sakona sortzen du.

Oratoria eta idazkera: Ikasketetan zein lanean helburu limurtzailez elkar komunikatzen garen egoerak era askotakoak izaten dira. Komunikatzen jakitea emaitzak lortzeko biderik funtsezkoena da. Ez da inor bere izanagatik edo dakienagatik baloratzen, adierazpenerako duen gaitasunagatik baizik.

Inteligentzia aplikatua: Arazoak dira giza-kiak duen inteligentziaren benetako motorra, adimena arazo horiek atontzeko tresnarik egokiena den bitartean. Arazorik bako bizitza batek ez du inolako bizigarririk.

Behaketarako trebetasunak garatzeko diseinututako ikasbidearen bitartez, arazo ditugunak aukera bihur daitezke.

Inteligentzia emozionala: Gaur egun, 'balore materialak' 'balore ukiezin'-akaz esparru jakina partekatzen duten bizitza orekatutzat arrakasta definitzeko geroago eta joera handi eta nabarmenagoa dago. Bizitza orekatua ezin lor daiteke 'erabateko arrakastaren sistema' izena eman zaiona abiarazi eta eustea ahalbidetzen digun elementua den Inteligentzia Emozionalik barik.

Programazio neuro-linguistikoa: PNL gure zentzumenen bitartez jasotzen dugunaren ikasketa da. Beraz, teknika eta tresna zehatzen bitartez, norbere hazkunderako eta pertsonen arteko harremanen hobekuntzarako trebetasunak garatu eta aintzatestea ahalbidetzen digun aplikazio praktikoa da.

Gorka Aurre & Pablo Cunsolo
(Prakagorri S.L. - ILVEM Euskadi)



2009KO MAIATZA, SERANTE

Altzorik bako mendia / Laino bako egun argietan erraz ikusten dugu Serante mendia gure eskualdetik. Askok eta askok, domeketako ibilalditxoaren helmuga bezala aukeratu izan dute behin baino gehiagotan. Baina, gure argazkilariak harrapatu zuen egun horretan, ezinezkoa zen tontorreraino igotzea. Nork lapurtu zion Seranteri altzoa? Agian, gogorik izan barik, mendirako plana egin zuen koadrila bateko partaideak. Auskalo nor izan zen, baina argazki ederra utzi zigun. Eskerrik asko opariagatik lapur misterioitsua! ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

gu geu

Kultura eta tenperatura

UK aldizkariko 159. ale honetan ikusiko duzunez, tenperatura beroakaz eta udagaz batera ekimen kulturalak biderkatu egiten dira gure eskualdean. Ez dakigu hori zientifikoki zehazteko formularik egongo den, baina errealitatea da. Honeguz ez dugu esan gura negu partean ez diogunik kulturari garrantzirik ematen. Baina, udako kultur ekimenak erraldoiakoak eta ikusgarriagoak izan ohi dira. Neguan aldiz, taberna zuloetan edo antzokietan ezkutatu dugun kultura.


Getxo, beroa eta kultura aldagaiztat dituen formula zientifiko horren adibide garbia da. *Blues Jaialdia* joan bada ere, uztaileko lehen egunetan jazz zaleen txanda izango da. Hori baino egun batzuk lehenago, eskualdeko rock eta pop zaleek bere jaialditxoak izango dute, *Getxo Sound*, hain zuzen ere. Baina dena ez da musika mundu zoro honetan. Film laburrak eta bertsolariak protagonista izango dira, *Gaurik laburrenean* eta *Bertsoa saio mundialean*. Eta horregaz batera, Uribe Kostako zein Euskal Herri osoko udako sozializazio ekintza nagusiak diren herrietako jai "artxi-ezagunak". Leioakoak eta Erandioko zenbait auzotakoak joan zaizkigu dagoeneko; baina, horien atzetik, Sopela, Larrabasterra, Algorta, Gorliz etab. datoz. Frantziako Tourra baino gogorragoa izan daiteke hori! Eutsi goiari txirindulariak!

UK-ko lantaldea

fruten posterra

Zelan eskuratu?
Zatoz UKren bulegora*, eskatu eta eroan!

* bulego ordutegia: 10:00-14:00
Ameztu 6, 4. solairua / 5. bulegoa



Ezaugarriak

Neurriak: 40 x 70 cm

Zer dakar posterrak?

Fruten izenak
(euskaraz, gazteleraz,
frantsesez eta izen
latinez) eta eurak
jateko sasoiak.

[lehen]



GETXOKO UDAL LEHURJUTEGIA

[orain]



ASERMENTIXAKA

Iraganez doa denbora* beti / BASAGOITI ETORBIDEA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > piraguak



2009ko maiatza, Airiluze (Getxo)

Testua: **Unai Angulo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

** Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan*

Denboraldia hastear dago urtero udan da heltzen nahiz (e)ta oraindik topera ez gauden ondo gabilitza prestatzen ia aurtengoan traineruakin asmatzea dugun lortzen oraindik lasai sentitzen gara ari gara kontzientziazten elkarlanean joango dira helburu denak betetzen.

Gaur zortzi gatzoz entrenatzera binaka joango gara arraunak jarri traineruetan ikasi gendun erara astiro hasi berotu asmoz hemendik (e)ta Galeara Armintzaraino gogor eragin dauden indarrak atara (e)ta gero bueltan jasoko dogu ilunabarran zirrara.

Lana neguan hasten da noski arraunaren erregela urte osoan entrenatuta bidea landuz horrela arraunlariak badaki udan azterketak datozela amets (e)ta emaitzak onak (e)ta txarrak aurten izan daitezkeela horren gainera jakin dakigu traineru beran gaudela.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidali iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



LAN ESKAINTZA

Publizitate salmenta eta sustapen lanetarako arduraduna

- * eskualdea ezagutzea kontuan hartuko da
- * irailen beharrean hasteko

* Bidali curriculum-ak publiuk@aldizkaria.biz helbide elektronikora

san juan gaua > su garrek Uribe Kostako txokoak berotuko dituzte



Sua izaten da San Juan gaueko protagonista

Sua izaten da San Juan gaueko osagai nagusia. Suak Eguzkia elikatzen du sineskera zaharren arabera. Uribe Kostan, herrietako plazetan, hondartza inguruan, auzoetan zein zelaietan batzen gara eguzkiari jatekoa emateko. Gau ederra izan ohi da San Juanekoa, urteko laburrena bada ere. Leioan, inguruko sorginak herrira jaitsi eta akelarrea egingo dute gauerdian. Getxon aldiz, 18:30ean hasiko dira ospakizunak. San Nikolas plazan, Xirula-Mirula jaialdia, makillaje eta txalaparta tailerrak, txokolatada, bertsolariak eta Gorrondatxe abesbatza izango dira. Armintzan, euskal poteoa egingo dute 18:45etik aurrera; 22:00etan sua piztuko dute. Berangon, Traperos del Rio taldearen emanaldiagaz eta txerriki janagaz gozatu ahal izango da 19:30etik aurrera Lantzarten. Honez gain, guk ezagutzen ez ditugun hainbat ospakizun txiki egingo dira. Ondo pasa! o

getxo > jai handietan txosnak ipintzeko eskaera epea zabalik



Ekainaren 29a arte egin ahal izango da txosna eskaera

Udako jaiak heldu dira; baina, egun handietarako dena prest edukitzeko, lan gogorra egin behar dute aurretik elkarte, kolektibo eta jai batzordeek. Getxon, datorren ekainaren 29a arte egingo da zabalik San Inazio (lau txosna), Erromo (bost txosna) eta Portu Zaharreko (lau txosna) jaietan txosna ipintzeko eskaera aurkezteko epea. Eskaerak Getxoko Udaletxean, Algortako, Erromoko eta Andra Mariko Hiritarren arretarako Bulegoetan eta Udaltzaingoen egoitzan aurkeztu ahal izango dira. Adjudikatzearen alderako kontuan hartuko dira elkartearen beraren izena, Getxoko gizartean duen finkatzea edo zeinen errotuta den, 2008ko kontuen egoera eta 2009rako aurrekontua, ateratako etekin ekonomikoak Getxon garatuko diren ekimenetara zuzentzea eta zigor-espedienterik ez izatea. o

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

artea > Mirentxu euskarazko zarzuela ekoitziko du Arriaga antzokiak



Jesus Guridi musikagilea

Bilboko Arriaga antzokiak denboraldi barria aurkeztu zuen ekaina hasieran eta, beste behin ere, proposamen interesgarriak ekarriko ditu; abuztutik aurrera, zazpi obra ekoitziko ditu (hiru opera, antzezlan bi eta zarzuela bi). Horien artean, Jesus Guridi (Gasteiz, 1886- Madril, 1961) musikagilearen *Mirentxu* euskarazko zarzuela egongo da. 2010eko ekainean eskainiko du Arriagak obra hori, estreinatu eta 100 urtera. Maria Bayo sopranoa arduratuko da protagonistari ahotsa jartzeaz. Ez gaude ohituta zarzuela euskaraz entzuten eta Arriagak goi mailako musikagile baten lanagaz emango du horretarako aukera. Euskal Herriak eman duen musikagile ospetsuenetakoa da Guridi. Diziplina ugari landu zituen, sinfoniak, zarzuelak, operak eta zinemako musika, besteak beste. Bereak dira *El Caserio* eta *Amaya* zarzuelak, *Aldapeko* eta *Boga-boga* abesbatzentzako lanak eta *Hator mutil* eta *Anton Aizkorri* abestiak. ○

bidebitarte txokoa > herri bizitzaren pizgarri



Txokoan antolatutako azken ardo-dastaketa

Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, datorren urteko maiatzean 50 urte beteko ditu Algortako Bidebitarte txokoak. Jatorria dauka herriko *Sociedad de Cazadores y Pescadores* elkartearen baina denborak aurrera egin ahala gastronomia hutsa jorratze aldera bideratu da txokoa. Marmitakoan adituak eta maisuak dira, izan ere, Euskal Herriko txapeldunak izan dira birritan. Baina gastronomiaz gain herriko bizitzaren alde behar handia egiten dute eta esaterako, makina bat ekitaldi eta elkarterekin bat egiten dute; bertsolariak, pilotariak, Kultur Etxea, Getxophoto... denek daukate jateko lekua txoko gozo honetan. Ardozaleak ere badira, jakina. Horren adibide duzue alboko argazkia. Bertan, Piérola upeltegiko buruak, Juan Carlos Hernández de Piérolak, herriko txokoetako ordezkarien aurrean ekainaren hasieran eskaini zuen ardoen gaineko maisu-eskola duzue. ○

[erretratua]



“Uragaz lotura estua izan dut txikitatik eta horregatik ari naiz sorosle”

Andere Vidal > Ereaga hondartzako soroslea

Elkarrizketa hasi eta gutxira, anbulantzia bila joan behar izan du 159. aleko Erretratuko protagonistak. Baina ez arduratu, ez da inor larri zauritu. Ekainaren 6an, hondartza denboraldia zabaldu zutenean, hasi zen Andere Vidal leioztarra Ereagan, sorosle. Bere herrian hondartzarik ez badago ere, lotura estua izan du txikitatik uragaz: “Waterpoloan jolasten dut; igeri egiten ikasi nuen ibiltzen hasi aurretik. Aita hondartzan ibili zen gaztetan eta eroaten ninduen”. Bere lehen urtea den arren, orain arte lasai ibili da: “Gure lana jendea uretatik ateratzea baino gehiago da, jendeak kontrakoa pentsatu arren. Istripuak ekiditen saiatu behar gara”. Goizko 11:00etan hasten da sorosle baten lan eguna: “Ereagakook gainerako hondartzak zabaldu behar ditugu. Deiak egin, banderak eta uraren tenperatura begiratu eta orduan hasten gara hondartza patruilatzen”. Emakume gutxi dago sorosle lanetan, baina Vidal ez da baztertua sentitu: “Sarrera probetan emakume oso gutxi egon ziren eta hori aldatzen saiatu behar gara. Betidanik izan dira mutilak kirolagaz lotu direnak, baina hori aldatuz doa”. Emakumea izatea baino, gaztea izateak ekarri dio arazo gehiago: “Gazteak garelako jendeak txarto begiratzen gaitu. Komentarioak entzun behar ditugu, ume moko esaten digute”. Hondartzatik irteerakoan, itsasoa eta harea alde batera utzi behar izaten du: “Gurago dut mendi aldera joan”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan Reprografía
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



Eskualdeko azpieuskalkia

Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak bertoko hizkuntza ondarea jaso eta zabaltzeko bigarren lankidetzaren hitzarmena sinatu dute

Eskualdeko garaiko euskaldun zaharren berbak, esaera zaharrak, esakerak, kantuak, pasadizoak... ez galtzeko Uribe Kostako Mankomunitateak eta Getxoko Udalak hitzarmen bi sinatu dituzte dagoeneko. Akordio hauen bidez audio eta bideo grabaketak eskualdeko azpieuskalkian egin dira eta orain sortutako material didaktikoaren kopiak eta honen hedapena zabaltzeko gura dute.

Eskualdeko hizkuntza ondarea jaso eta zabaltzeko bigarren lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Getxoko Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateak. Akordio barri hau, 2005eko uztailean entitate biek aurrera ateratu zuten hitzarmenaren jarraipena baino ez da. Garai hartan, Uribe Kostako azpieuskalkia eta berak daukan aberastasun guztia jaso eta zabaltzeko egitasmoa martxan jartzeko hitzarmena sinatu zen. Ekimen hori aurrera ateratzeko 120 euskaldun zaharren audio eta bideo grabaketak eta material didaktikoa egin ziren, ondoren materiala digitalizatu eta sailkatzeko.

Egitasmo horren ardurak Labayruk hartu zuen. Ikastegia beraz, Lemoiz, Plentzia, Urduliz eta Getxoko euskaldun zaharren berbak, esaera zaharrak, esakerak, kantuak, pasadizoak... gal ez zitezen audio, bideo eta irudiak batzen ibili izan da. Fredi Paia da, Labayruren izenean, honen inguruan lanean aritu denetakoa. Bertsolari getxoartzarrentzat lan honek "mundu zoragarria" zabaltzeko diola eta bizitza osoan zehar ez duela horren



Fredi Paia bertsolariarekin emakume baten testigantza entzuten eta grabatzen

beste ikasi azaldu du Euskalkultura.com webgunera egindako adierazpenetan, "gure kultur ondareari garrantzia emotea informanteen autoestimurako sano positiboa da, kontuan izanda, euren ama-hizkuntza euskara izateagatik hainbeste sufri du behar izan dauen jentea dela".

«Sortutako material-didaktikoa Lehen Hezkuntzako ikasle eta Haur Hezkuntzako irakasle eta gurasoei banatuko zaie.»

Lehen hitzarmen horren helburua, beraz, ondare etnografikoa eta linguistikoa batu, sailkatu eta erabilera era didaktiko-pedagogikoan ematea zen, proiektuaren interesgune nagusia lehen hezkuntza izanda.

Bigarren hitzarmen honek ordea, sor-

tutako audio, bideo eta irudien kopiak egin eta banatzea bere erabilera ikastetxe, euskaltegi, kultur eta kirol elkarte eta hizkuntza-transmisio helburu duten taldeen artean sustatzeko. Getxoko alkate Imanol Landak azaldu duenez "gero eta pertsona gutxiago eta zaharragoak dira eskualdeko euskara erabiltzen dutenak eta orain, bildutako material honen erabilpena bultzatzea bilatzen dugu". Hitzarmen barriak, aipatu bezala, material didaktikoa Lehen Hezkuntzako ikasle eta Haur Hezkuntzako irakasle eta gurasoen artean banatzea du helburu.

Baina etorkizunari begira, sortutako material hau esparru gehiagotara zabaltzea ere planteatzen da, proposamenen artean antzerki obraren bat egitea aipatu da, baina dauden diru-laguntzen arabera erabaki beharko da materialaren hedapena. ○

Getxoko Udalak

ostalaritzarako ordenantza barria onartu du



Arau berriak hiri eremuan jarduera handiagoaren garapena bultzatzea du helburu

Udalak taberna txikien irekitzea ahalbidetzeko, lokalen arteko distantzia minimoen ezabapena suposatuko duen ordenantza onartu du. Arau barriak gainera, 40 metro koadroko gutxieneko azalera erabilgarriaren baldintza ere baliogabetuko du. Udalak adierazi duenez, arauak "herriari bizitasun handiagoa emateko", hiri eremuan jarduera handiagoaren garapena bultzatzea du helburu.

Ordenantzak arautzen dituen gaien artean, jarduera espezifiko eta kokalekuen baldintzak multzotan sailkatzea; ekipamendu, osasun eta higiena bezalako baldintzak hobetzea; lokaletako kutsadura akustikoa gutxitzeko neurriak hartzea eta lizentzien emakida, iraungitzea eta luzatzea dira, besteak beste.

Arau barriak ostalaritza sektoreko

establezimendu guztietan izango du eragina, baita izozki-denda, edo ogitartekodendetan ere. Gainera testuan, lokutorioek beraien artean 100 metroko tartea gortetzen badute, lizentzia eskuratzeko esku-bidea izango dutela azaltzen da, 150 metroko distantziak pub edo klub moduko lokal berezietan, dantzalekuen kasuan 300 metroko tartera igoko delarik.

Testua idatzi dutenek establezimenduetarako bost kategoria desberdin batzen dituen sailkapen barria ezarri dute, sor daitezkeen eragozpenen arabera gehien bat. Hau dela eta, lokalaren arabera, zarata maila altuenak 75 dezibeliotik 100era bitartekoak izango dira. Gainera, ordenantzak kalean barrak ipintzea ere eragozten du, izozki-denda eta antzeko lokalen multzoan izan ezik. ○

BOTILATZARRA EKIDITEKO NEURRIAK

Bidezabalgoko metro geltokian, edari alkoholikoak daramatzaten adin gabekoen urteera kontrolatzea eta gazte horien edariak atzeman eta botatzea dira Getxoko Herriarren Segurtasunerako Sailak, asteburuetan, gazteen kontzentrazioak ekiditeko indarrean ipini dituen neurrietako batzuk. Antza denez, hamar bat nerabez osatutako kuadrilak internet bidez Bidezabalen geratu eta Arrigunaga aldera joaten dira edatera, zarata handia ateraz eta inguru guztia zikinduta utziz. Hori dela eta, bertan bizi diren auzokoak kexatu egin dira eta Udaletik neurriak hartu behar izan dituzte Udaltzaingorearen presentzia nabarmen handituz.

ISUNAK INTERNETEN BIDEZ ORDAINTZEKO SISTEMA BARRIA

Udalak trafiko isunak Internet bidez ordaintzeko era barria prestatu du. www.getxo.net webgunearen bitartez zergadunak zerga ordaintzea ahalbidetzen duen sistemagaz bat eginez. Ordaintzeko modu hau erabiltzeko "Euskadiko Administrazioen Ordainketa Pasabidea", Eusko Jaurlaritzak eraturako sistema atxikitutako banketxe eta aurrezki kutxetan edozein ordaintze-txartela edukitzea, eta isunaren jakinarazpen orria edo Udalak bidalitako zergaren ordainagiria behar dira.

BIOTZ ALAI PLAZA ESTALTZEKO LANAK IRAILEAN HASIKO DIRA

Udalak Algortako Biotz Alai plazaren ingurua estaltzeko proiektua onartu du. Horretarako, bertan dauden eskultura, loreontzi eta eserlekuak bota, eta plazaren erdigunea garbi lotuko da umeentzako jolasgunea ipintzeko. Horrez gain, inguruko terrazak jartzeko esparrua libre utziko dute. Lanak datorren irailaren amaieran hasiko dira eta lau hilabetez luzatuko dira.

san inazio

autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA



Cristian Villavicencio > Wanted lehiaketako irabazleetako bat

“Wanted lehiaketagatik ez balitz, ezingo genituzke gure ideiak aurrera atera”



Hirukoteak “Norabide guztiak” proiektuagaz Wanted lehiaketaren lehenengo saria irabazi du

Nerabeak eta kulturartekotasunari buruzko “Norabide guztiak” dokumentalaren proiektuak irabazi du Getxoko Udalaren Gazteria arloak deitutako “Wanted” lehiaketa. Leire Muñoz, Patricia Andres eta Cristian Villavicencio dira proiektua aurrera atera duten gazteak. Dagoeneko dokumentazio lana hasi dute, hilabete barru filmatzen hastea espero dute eta urtearen amaierarako dokumentala amaituta izatea ere.

—Kontatu egiguzue zertan datzan aurkeztutako “Norabide guztiak” proiektua?

—Proiektu-dokumentala da, baina gizarte hausnarketarako pentsatua. Hortik abiatuta, heldu barriak edo duela hamar urte etorritako nerabeek Getxogaz duten elkar eragina lantzea pentsatu genuen; beti aisiarako uneetan pentsatuz, nortzuk diren beraien lagunak edo egunero zein arazo motari aurre egin behar izaten dioten ikusita. Dokumentatze prozesuan ibili gara immigrazioari buruzko hitzaldi batzuetan eta datu orokor batzuk batu ditugu. Orain, informazio sakonagoa batzen hasiko gara,

pertsona guztiak batu eta nondik bideratu behar dugun pentsatuz.

—Nolako izango da sortze prozesua?

—Getxoko Immigrazio Sailagaz harremanetan jarri gara eta bertokoez etorri barriak diren gazteentzako euskara zein gaztelera ikasteko laguntza moduan funtzionatzen duten irakasleen telefonoak eman dizkigute. Gehien interesatzen zaizkigun gaiak ikus ditzakegu eta puntu honetatik istorioak lotzen joan. Beraz, nik uste dut hasieran institutu edo ikastetxeetara hurreratzea egin beharko dugula eta irakasleak elka eragintzen aritu.

—Zelako aholkuak jaso dituzue gainontzeko parte hartzaileen aldetik?

—Aurkezpena egin genuenean adibidez, euskararen ideia nola bideratuko genuen galdetu ziguten, elementu garrantzitsu moduan kontuan hartzeko. Heldu barriak diren gazte etorkinak, bai euskara eta bai gaztelera, hizkuntza biak ikasi behar izaten dituztelako. Bestetik, dokumentalean parte hartuko dutenen adina mugatua izatea aholkatu ziguten; hasiera batean, adin tarte zabalagoa jarri genuelako, hau da, nerabeak izan behar zirela azaldu genuen, baina ez zein adin tartetakoak. Ideia elkartrukatzea

«“Norabide guztiak” etorkin gazteei buruzko proiektu-dokumentala da »

izan zela esango nuke.

—Zelan ikusi dituzue gainontzeko parte hartzaileen proiektuak?

—Besteek planteatutako lanak komentatzen genituen, eta nik uste dut ondo zeudela. Kultura oinarria zuten proiektu asko zeudela deigarri iruditu zitzaidan. Azkenean irabazi dugun hiru taldeon lanak kulturari buruzkoak eta nahiko artistikoak izan dira. Musika taldeentzako maketa proiektuak edo laburmetraiak zeuden orokorrean.

—Zelako esperientzia izan da Wanted ekimenean parte hartzearena?

—Oso ona. Lehen aldia da lehiaketa batean parte hartzen duguna eta sari ekonomikoaz gain, ekoizlearen aholkularitza izan dugu, ez da normalean eskaintzen.

—Nola ikusten dituzu honelako ekimenak?

—Oso ondo. Azken batean oraindino ez gara enpresa. Ideiak eta proiektuak buruan dauzkagu, baina ekimen hau barik ezingo genituzke aurrera eroan. ○

Getxo Sound jaialdian Celsius 32, Nun, Sacrum eta Those Radios taldeak oholtza gainera igoko dira



Nun taldeko kideak

Getxo Sound jaialdia egingo dute bigarren aldiz Algortako San Nikolas plazan, ekainaren 26an, barikuan. Herriko pop-rock taldeen lana bultzatzea eta horien musika publikoari ezagutzera ematea dira jaialdiaren helburu nagusiak. Orotara lau taldek parte hartuko du: Those Radios, Hirukote honek 60 eta 70 hamarkadetako taldeak hartzen ditu erreferentzia moduan. Bere abestietan betiko pop-rocka entzun daiteke eta kanta gehienak ingelesez abesten dituzte.

Nun da Getxo Sound-en parte hartuko duen bigarren taldea, bizkaitarrek 2002an eman zituzten lehenengo pausoak

beren lehen maketa kaleratu zutenean. Baina orduz geroztik, taldeak eboluzio etengabea izan du eta orain “Collage”, pop eta hardcorearen artean kokatzen diren zazpi kantuk osatutako diskoagaz datoz.

Sacrum barriz, 1999an sortutako taldea da eta hainbat gora-behera jasanda ere, disko bat kalean daukate eta bigarrena prestatzen ari dira.

Azkenik, Celsius 32 dugu, talde hau aire barriak dator lan barria aldean daroala, soinu rockeroagoak, ahots landuagoa eta taldearen aldaketak eragin garbia izan du “Fragment records” diskoa sortzeko orduan. ○

UZTAILAN ETA ABUZTUAN ERE BERBALAGUNAKAZ EUSKARAZ EGIZU

Egizu! Getxoko Euskaldun elkarteak berbalagun talde barriak jarriko ditu abian uztaile eta abuzturako. Antolatzaileek azaldu dutenez, udan, jendeak denbora gehiago dauka eta beraz errazagoa da terraza batean lasai-lasai berbalagunakaz elkartzeko tartetxoak bilatzea. Interesatuak ekainaren akabura arte izango dute izena emateko epea. Parte hartzeko, asteko eguna eta ordua zehaztu beharko da eta horren arabera, talde barriak sortuko dituzte Egizuko lagunak.

PORTU ZAHARREKO JAIETAKO 16. KARTEL LEHIAKETA MARTXAN

Algortako Portu Zaharreko Jai Batzordeak 2009ko Jaietarako kartel lehiaketan parte hartzeko deia egin du. Lanak Villamonteko Kultur Etxean aurkeztu behar dira uztailearen 2ra arte. Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta parte hartzaile guztien artean lagun birentzako otordua zozketatuko dute Portu Zaharreko jatetxe batean. Kartelei dagokionez, neurriak 70x50 zentimetrokoak izan behar dira, horizontalean edo bertikalean. Kartela egiteko sistema digitalik erabili bada, euskarri informatikoan ere aurkeztu beharko da eta lanagaz batera izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta helbide elektronikoa azaldu beharko dira.

UZTAILAREN 1ETIK LETREN TERRAZAK ZABALIK

Uztailaren 1etik abuztuaren 28ra, liburuak kalera urtego dira publikoarengana hurreratu eta eguzkipean aisialdiaz gozatzeko, izan ere, Letren Terrazak ateak irekiko ditu. Urtero legez, Areetako eta Algortako Geltokia plaza eta Bidezabalgo Sarri plaza izango dira liburutegi ireki hauen lekuko, astelehenez barikura, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA

[leioa]

Lorea Luzaide > duela bederatzi urtetik hona, Saharako umeak hartzen ditu etxean

“Oso garrantzitsua da ume sahararrak hartzea bertan, baldintza oso txarretan bizi baitira”

Urtero legez, udan, Udalak Saharako Umeak hartzeko ekimena martxan jarri du. Lorea eta bere familiak bederatzi urte daramate haur sahararrak hartzen eta bizitako esperientzia positiboa azaldu digu.

—Zer da esperientzia honetatik gehien gustatu zaizuna?


—Dena. Oso positiboa da. Asko ikasten dugu, gainera, daukaguna gehiago baloratzen laguntzen digu.

—Eta gogorrena?

—Alde egiten dutenean. Oso gogorra izaten da. Azken finean, hilabete bi eman dituzte gugaz bizitzen. Baina Aste Santuan barriro ikusiko ditugula pentsatzen dugu eta horregaz aurrera egiten dugu. Gainera, beraientzako ere oso positiboa dela pentsatu behar dugu, medikuek ikusten dituztelako, gauzak ikasten dituztelako eta beraz, oso, oso garrantzitsua da beraientzat.

—Saharako umeak datozenean zelako jarrera izaten dute, beraientzako beste mundu bat da hau, ezta?

—Hartu genuen lehenengo umeari argia edo ura izugarria iruditu zitzaizkion, adibidez. Nire tratua beraiekiko alabari ematen diodan bera izaten da. Oihu egin behar badiet oihera egiten diet, zerbait josi edo plantxatu behar



Lorea Luzaide, senarra eta alabagaz

diedala ere berdin. Guretzako hilabete bi horietan, familiako beste bat izango balitz bezala dira. Hasieran datozenean kilikil azaltzen dira, baina azkar aldatzen dute jarrera.

—Eta adinez nagusi egiten direnean zer?

—Adin batetik aurrera ezin dira etorri; beraz, guk aukeratzen dugu beste bat gura dugun edo ez. Aurrekoak ikusi gura baditugu hango kanpamentuetara joatea baino ez dugu. Harremana izaten jarraitzen dugu, deitzen gaituzte eta guk aldiz, Aste Santuan eta Gabonetan

gutunak bidaltzen dizkiegu diruagaz.

—Uste duzu nahikoa dela egiten denagaz edo gehiago egin beharko litzateke?

—Ez. Oso gutxi egiten da, Saharan, behar izugarria dago eta urtero arazoa handituz doa. Baldintza oso txarretan bizi dira. Guk hara joaten garenean, egoera gero eta txarragoa eta laguntza gutxiago jasotzen dituztela ikusten dugu. Beraz, oso garrantzitsua da umeak hartzea ekarpen handia egiten dutelako eta saharar herria lagundu behar dugulako. ○

Uztaila ekintzaz lepo

gazteentzako aisia osasuntsua, kultura eta kirol ekintzak udarako



1.000 umerentzako ekintzak izango dira

Kirola, kultura eta aisia osasuntsua gazteei sustatzeko, Udalak hiru programa eskainiko ditu uztaileko. Guztira 3 eta 17 urte bitarteko ia 1.000 ume eta gazte-ek hartuko dute parte ekimen honetan.

Alde batetik, 20 urte lanean daramatzan Uda 09 kanpaina. Aurten 7 eta 13 urte bitarteko 800 ume hartuko du parte bertan. Aipatu beharra dago, programa honek izan duen arrakasta dela eta parte hartzeko eskaera kopurua handiegia izan dela beti eta ume asko kanpoan geratzen zirela. Hori dela eta, tanda bitan banatuko da, alde batetik uztailearen 1etik 15era 400 ume hartuko dute parte, eta bestetik 15etik 30era beste 400 gaztetxok. Honegaz eskaera kopuruari

aurre egingo zaio eta izena eman duten ume guztiek parte hartu ahal izango dute. Ume hauek lan egiteko 45 monitortore kontratatu dira.

Bestetik, 3 eta 7 urte bitarteko 131 ume parte hartuko duten “Uda txiki” programa. Bertan, Txomin Aresti eta Altzaga ikastola, Artatza-Pinueta eta Lamiakoko ikastetxeak, eta San Bartolomeko ikastetxeok arituko dira.

Amaitzeko, aurten lehen aldiz, Aterpe Gazte Bulegoak “Uda Leioan gaztea” kanpaina antolatu du 14 eta 17 urte bitartekoentzat. Helburua gazte hauei ere udarako ekintza bereziak eskaintzea, euren adinaren arabera programa batez uztailaren 6tik 17ra. ○

KE DETEKTAGAILUAK JARRIKO DITUZTE ADINEKOEN 14 ETXETAN

Pertsona edadetuak, askotan, etxeko suteek kaltetuak izaten dira eta beraz, arazo honi irtenbidea eman guran, joan den urtean, Leioako udalak gizarte ekintzarako proiektu aitzindaria ipini zuen martxan. Ia ehun ke detektagailu instalatu zituen laguntza behar dutenen edo dependienteak diren pertsonen 74 etxetan. Honegaz batera, larrialdi kasuetan ebakuzio azkarra ahalbidetzeko krokisa egin zuen. Orain, mota honetako instalazioa duten onuradunei beste hamalau erabiltzaile gehituko zaizkie. Azken hauen perfila bakarrik bizi den adineko emakumearena da. Bestetik, istripuak ekiditeko programa indartuko da, bateriaren ordezkari iraupena duen sistema berezia erantsiz, zirrikituen garbiketa eginez eta dispositiboak, behar direnean, aldatuz.

NURIA FERNANDEZEN LOGOA BERDINTASUN SAILEKO IRABAZLE

Udalak Berdintasun Saileko logoa aukeratzeko lehiaketa deitu zuen duela aste batzuk. Bertan, 89 lan aurkeztu ziren eta horien artean irabazlea Nuria Fernandez santurtziararen logoa izan da. Epaimahaia zazpi lagunek osatuta egon da; Kultura eta Gizarte ekintzetako zinegotziak, pintura eta eskulanean aditua, diseinu grafikoa aditua, Berdintasun aholkularia, Udal Berdintasun saileko teknikaria, eta Andrak Emakumeen elkarterako kide bat. Irabazleak 1.000 euroko saria jaso du.

SAN JUAN IKUSKIZUNA ETA SUAK BOULEBAR ETA UDALETXEKO PLAZAN

Leioako egun nagusia dugu San Juan eta urtero legez, aurreko gauean, hilaren 23an, ezin zen falta San Juan ikuskizuna Leioako Boulebarren 22:30ean eta sua 23:15ean Udaletxeko plazan.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Alex Herranz Hernandez > komiki egilea

“Lagunek egiten dituzten lanak hartzen ditut inspirazio iturri”

Getxotarrak Erandioko komiki Lehiaketa irabazi du “El billete” lanagaz. Lehenengo aldia da saria irabazten duena, eta lanean jarraituko duela azaldu digu. Komikigilea izateaz gain Herranzek magistaritza ere ikasi du eta aerografia ikastaro batean eman du izena.

—Zertan datza orokorrean “El billete”?
—Protagonista, kalean eskean dabilen gizona da, honek andre bati erori zaion billetea topatuko du. Kontzientzia ona eta txarraren arteko borroka sortuko da; hau da, billetea berarentzako gordetzea edo barriro lurrean uztearen arteko zalantza.
—Zelan bururatu zitzaizun ideia?
—Egia esan ez dakit, saltzaile tipiko edo pertsona onak batzen dituzten istorioak beti iruditu zaizkit kuriosoak.
—Irabaztea espero zenuen?
—Ez. Saria eskuratzeko dudaren lehenengo aldia da, eta esango nuke baita azkena ere.
—Zelakoa izan zen sortze-prozesua?
—Lehenengo eta behin, istorioa hasieratik amaieraraino pentsatzen dut eta gero orrialdeetan banatzen joaten naiz. Normalean, orrialde bakoitzean, ekintza amaituak edo bestela irakurtzen jarraitzen bultzatzen gaituzten pasarteak sartzen saiatzen naiz.
—Zeintzuk izaten dituzu inspirazio-iturri?



Alex Herranz Hernandez Erandioko komiki lehiaketako irabazlea

—Normalean, ez dira autore ohikoak izaten, lagunak egiten dituzten komikiak hartzen ditut kontuan, batez ere. Hala ere, kasu honetan, Brugera, Karpanta edo Mortadelo eta Filemonen istorio tipikoen zertzelada batzuk sartu ditut.
—Zelan sartu zinen komikiaren munduan?
—Fancine edo Getxoko Komiki Azokan beharrez, bertan, urtero karikaturak egiten baitituz. Bere garaian, Arte Ederrak ikasten hasi nintzen, baina utzi egin nuen

eta orain, kontua serio hartu dut, aerografiari buruzko ikastaro batean izena eman dut.
—Zelan izan zenuen lehiaketaren barri?
—Iaz, lagun batek irabazi zuen, ideia eman eta animatu egin nintzen.
—Etorkizunari begira, zer daukazu esku artean?
—Esan dizudan moduan, aerografiari buruzko ikastaroan eman dut izena eta jai eta ezkontzetan karikaturak egiten jarraitu gura dut. ○

Oinezkoentzako **bideak**

Astrabuduko urbanizatze lanak hasi dira Ollaga, Elexaurre, Zeharkalea eta San Lorenzo kaleetan



Ollaga kalea

Astrabuduko Ollaga, Elexaurre, Zeharkalea eta San Lorenzo kaleetan urbanizatze lanak hasi dira eta bederatzita hilabetez luzatuko dira. Guztietan oinezkoentzako bideak zabalduko dira mugikortasun urriko pertsoneri erabilerraztasuna ahalbidetzeko. Lanek 1.528.463 eurotako aurrekontua sopsatzen dute.

Proiektuaren eragozpenetako bat kotxea aparkatzeko 25 leku desagertuko direla da eta horregatik, Etxebeltz-en 80 plazatako behin-behineko aparkalekua prestatuko da. Ollagaren azken zatien kasuan aldiz, aparkalekuaren ilara biak mantenduko dira. Ibilgailu guztien baimendutako pasabideen kokapena eta zabalera eremu osoan mantenduko da. Honeguz batera, oinezkoentzako

bideak ere eraberrituko dira altuera handiagoa jarritz. Horrela, Ollaga kalean dauden hiru zebra-bideak aldatuko dituzte, Atxutegi kalekoa izan ezik. Gainera, Elexaurre, Zeharkalea eta Ollaga arteko loturetan oinezkoen ibilbidearen altuera ere igoko da. Jaunene plazarako sarreran eta San Lorenzon beste lau pasagune altu jarriko dituzte.

Lan eremu osoan, birziklatze eta hiri hondakinaren kontainer guztiak dauden moduan mantenduko dira.

Ura, telefonia edo elektrizitateko lurrazpi-ko sareen barrikuntzagaz osatuko da proiektua. Honi guztiari seinaleztapen horizontal eta bertikalaren lana gehituko zaio hiri-altzari barriak eta zuhaitz landatzeagaz batera. ○

HASI DIRA JADA METROKO PASEALEKUA BARRITZEKO LANAK

Metroko pasealekua barritzeko eta barriro urbanizatze lanak hasi dira dagoeneko. Gune hori oinezkoentzako esparru atsegina izan dadin eta erandioztarren topaleku nagusienetako izatera hel dadila gura dute. Lanek, zazpi hilabete inguru iraungo dute, eta metroko zabalguneko osoari eta alboko kaleei eragingo diete. Horregatik, Udalak nahiz eta obrek oinezko eta ibilgailuei eragozpenak sorrazaziko dizkietela aitortu, proiektua ulertzeko eskatu du, lana behar bezala egiteko.

DATORREN EKAINAREN 29AN HASI DIRA AISIALDIRAKO TERRAZAK

Urtero legeaz, Aisialdirako Terrazak martxan jarriko dira datorren ekainaren 29an, Josu Murueta Plazan. Orduetia 16:30etik 20:30era izango da eta adin guztietako jendeari zuzenduta daude. Bertara doan edonork jarduera programa erakargarri, parte-hartzaile eta dibertigarriaz goza dezake. Hala ere, bertan egiten diren jarduerak 2 eta 12 urte bitarteko umeei bideratuta daude. Liburutegia eta mailegu zerbitzua, koloretzatzeko marrazkiak eta fitxa didaktikoak, mahai jokoak, irakurzaletasuna bultzatzeko tailerrak, joko tailerra... dira aipatutako jardueretako batzuk.

MULTIABENTURA EUSKARAZ ERANDIOKO BERBOTSEN ESKUTIK

Erandioko Berbots Euskara Elkarteak Gorlizko aterpetxera bidaia antolatuta du ekainaren 27 eta 28rako. “Multiabentura asteburua euskaraz!” lelopean, taldeak egun bitan body-surf, kanoa-snorkel, rapel-eskalada eta beste hainbat jarduera antolatuta ditu. Informazio gehiago 630 404 171 telefono zenbakira deituz.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

ANIMALIEI TRATU TXARRA EMATEN ZAIEN IKUSKIZUNEN DEBEKUA

Sopelan ez da animaliei tratu txarra ematen zaien ekimenik antolatuko. Udalak horrelaxe jakinarazi du azken Osoko Bilkuran, animalianganako tratu txarren aurkako mozioa aho batez onartu ondoren. Mozio horrek Nazio Batuen Erakundearen eta UNESCOren txostenetan du oinarria. Ebazpenak legeak animalien eskubideak babestu behar direla esaten du, gizakien eskubideak egiten den bezala. Halaber, Eusko Jaurlaritzari animalien babesa erregulatzen duen 1993ko legea aldatu eta egokitzea eskatzen dute Sopelako Udaletik.

UDALAK AURREKONTU BARRIAK ONARTU DITU URTE HONETARAKO

Udalak 2009 urterako aurrekontua onartu du azken Osoko Bilkuran. 22.072.423 eurokoa da aurrekontua. Bertan, Zalduko Haurreskola abian jartzea edo Urko kiroldegiko azpiegitura barneratuta dago. Gainera, diru sarrera urriak dituzten pertsonentzako gizarte laguntzak onartu dira. Aurrekontuak beste egitasmo garrantzitsu bi aurreikusten ditu; alde batetik, herritarrentzako harrera zerbitzua hobetzea, beharrezkoak diren azpiegiturak eta instalazioak abian jarri eta bestetik, Udaltzaingoaren plantilla zehaztu da eguneko 24 orduko lan ordutegia bete dezaten.

AITXU EUSKARA TALDEAK SURF IKASTAROK ANTOLATU DITU

Urtero legez, Aitxu Sopelako euskara taldeak ekainaren azken aste honetarako Peñatxuri surf eskolakoak batera, euskara bultzatzeko, surf ikastaroak antolatu ditu. Prezioa 50 eurokoa da, materiala eta aseguruia barne. Informazio gehiago 675 59 12 66 telefonoan.

Sopelako Kultur Etxea

Kulturari buruzko ekimenak batuko dituen Kurtzio deitutako eraikinak ateak irekiko ditu laster



Sopelako Kultur Etxe barria

Udalak Kurtzio Kultur Etxea irekiko du Sopelako Mendieta kalean. Eraikin barri honek herriko kultur ekimenak sustatzeko sortu da eta 2.5 milioi euroko kostea suposatu du, herrian egindako azpiegitura garestienetakoa bilakaturik.

Ekipamendu teknikoa azken belau-naldiko sistemak bideo-zaintza eta nahasketa mahai batek osatuta dago.

Bestetik, oihaldegi eta makineria eszenikoarentzako ekipoen lekualdatzeko hornidurak 240 metro koadro suposatzen du. Sopelako Udalak azaldu duenez, Kultur Etxe barri honeguz, antzer-

kiak edo formatu txikiko kontzertuak eskaini gura dituzte.

Aipatzekoa da, ume eta gazteentzako, Kultur Etxearen lehenengo solairuan, ludoteka bi prestatu direla. Gaztetxoenen aisiarako areto bi hauek beren erabilera aniztasunak bereizten ditu; izan ere, horma modularrak jarri dituzte gunea ekimen bakoitzera egokitu ahal izateko. Solairu berean, gainera, baina atarian eta pasabideetan erakusketak obrak, argazkiak edota kuadroak jarriko dira, espazio hau, horrela, lehengo Hall-en ordezkia izango da. ○

Eunate Agirre > Munduko Bodyboard Zirkuituko liderra

“Emakume gehiago ikusi gura nuke uretan”



Eunate Agirre bodyboard munduko lider izendapenagaz itzuli da Sopelara

Hilabete inguru Brasilen eman ostein Eunate Agirre dagoeneko bueltatu da etxera. Sopeloztarrak Cobra D'Água Bodyboarding Show Bahía txapelketa irabazi du, munduko zirkuituko lidergoa hartuz.

—Zure helburua munduko txapelduna izatea zen eta une honetan munduko onenen artean zaude. Zer sentitzen duzu?

—Primeran sentitzen naiz helburua beteta ikusteaz, baina denboraldi luzea daukat aurretik eta horrek erantzukizun handia suposatzen du.

—Zure aurkaririk gogorrena izan den Neymara Carvalhok gonbidatuta egon zara hilabete Brasilen entrenatzen, zelako esperientzia izan da?

—Oso ona. Garaipena hor dagoela, eta nire buruan sinetsi behar dudala erakutsi dit. Gainera, nire burua lantzen ere erakutsi dit eta uretan beragaz gauza asko landu ditut.

—Zelako entrenamenduak egin dituzue? —Egunero uretan ibili eta bakoitzak berea landu du. Alde batetik, entrenamenduak bidez grabatu ditugu eta gero, gure artean,

bata bestearen lana, estiloa edo potentzialaren aldetik, aztertu dugu. Gorputz heziketa ere landu dugu, hondartzan korrika egin, igeriketa, gimnasioan ibili, besteak beste. Buruz buru lanean erritmo ona hartu dugu.

—Oro har zelan joan zaizu urtea?

—Orain arte oso ondo, burututako hiru txapelketetan lorpen handiak izan ditut; lehenengo proba bietan txapeldunorde eta azkenengoan garaile. Txapelketa asko aurrean izanda ere, jada, lan handiena eginda dago.

“Neymarak garaipena hor dagoela eta nire buruan sinesten erakutsi dit”

—Emakume bezala zelan ikusten duzu Bodyboard mundua? Behar beste jende mugitzen da?

—Emakume gehiago ikusi gura nuke uretan. Neguan gogorragoa da, baina udan izugarriki kirola da; gorputz polita mantentzen laguntzen du eta oro har bizimodu osasuntsua bultzatzen du. ○

LAIKAK Taberna

Bentatu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**DEABRU BELTZAK
TALDEAK KALEAK
GIROTUKO DITU
EKAINAREN 26AN.**

Datorren ekainaren 26an barikuan, Deabru Beltzak antzerki taldeak Berangoko bazter guztiak girotuko ditu kale ikuskizunagaz. Emanaldia gaueko 22:30etik aurrera izango da. Taldea duela hamairu urte, 1996an, sortu zen hainbat antzerki taldeetatik etorritako aktoreen eskutik eta dagoeneko Euskal Herriko talderik nazioartekoena bilakatu da. Ibilbide luze honetan hamar antzezlan aurkeztu dituzte, horiekaz 2.000 ekitaldi eginez, 50 hirirako jaien zuzendaritza artistikoa eginez eta lau kontinente eta 30 herrialde baino gehiagotan lan eginez.

**TXANGOIA ADINEKO
PERTSONENTZAKO,
PAILAZOAK ETA DANTZAK**

Aisia eta kultur ekintzak nagusi izaten dira Berangoko udalerrian. Ekainaren 26rako adibidez, haur eta adineko pertsonen jardura desberdinez gozatu ahal izango dute. Nagusien kasuan, goizeko 08:00etan Najera, Logroño eta Gasteiz hiriak ikusteko aukera izango dute Karabiazpi Jubilatuta eta Pentsionisten elkarteak antolatutako txangoari esker. Gaztetxoek aldiz, 19:00etan, Patxin eta Potxin pailazoak hitzordua izango dute Moreaga parkean. Uztailearen 5ean, domekan, Simon Otxandategi Dantza taldekoek emanaldia eskainiko dute herriko frontoian eguerdikio 13:00etatik aurrera.



JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T. 460 01 87 48990 GETXO

Umeen Bizikleta Festa

Haurrentzako jarduerak, lasterketak eta txitxarriola izango dira besteak beste ekainaren 27 eta 28an



Umeak dira Bizikleta Festako protagonista nagusiak

Txikientzako jokoak edo lasterketak dira, besteak beste, aurtengo Umeen Bizikleta Festa eta Kutur Etxeak prestatu dituzten jardueretako batzuk, ekainaren 27 eta 28rako Moreaga parkean. Ekimenak helduak eta umeak aldi berean lotu, elkarbizitza hobetzea eta garraio ez-kutsagarri eta osasun-garria den bizikleta goraitzea du helburu.

Festa zapatuan hasiko da goizeko 10:00etan Four Cross-en entrenamendua-gaz. Egun berean, umeentzako puzgarri, antzara-joko eta ipuin-kontalaria izango dira. Txitxarriola 19:00etan egongo da eta aipatutako Four Cross-en final erdiak eta finala

ospatuko dira. Aipatzekoa da, bigarren esku-ko liburu azoka antolatu dutela.

Domekan barriz, Umeen Festa Martxa hasiko da eta bertan guraso nahiz seme-alabek parte hartu ahal izango dute. 13:30ean Trialsin erakustaldia izango da eta ordu erdi berandua-go martxan parte hartu dutenek hamaiketako jateko aukera izango dute. Arrastian eskolarteko bilera ospatuko da eta 20:30ean, aurtengo hirugarren Bizikleta Festari amaiera emango zaio. Festa antolatzeko, hainbat erakunderen babesa izan dute, Aldundia, Udala edo Bizkaiko Txirrindularitza Federazioarena, besteak beste. ○

Zuazua jatetxea > krisiari aurre egiteko menua!

Krisiari aurre egiteko menua: etxeko janari gozoa euro batean



Marta Corral bere amarekin Zuazuan

Batzuk krisi madarikatuaz gaizkiesanka dabilzanean, burua altxatu ezinik daudenean eta konponbiderik ikusten ez dutenean, beste batzuk irudimena landu eta oztopoei aurre egiteko irtenbide original bila dabilza. Azken horietakoak dira, hain zuzen ere, Plentziako Zuazua jatetxeko lagunak. Azken asteotan denon ahotan dabil Zuazua; hainbat komunikabidetan ikusi ahal izan dugu. Eta zergatik hainbeste ikusmira? *Krisiari aurre egiteko gidaliburu* izenpean, etxean egindako plater gozoak euro baten truke eskaintzen dituztelako. Bai, irakurle maitea, ondo irakurri duzu. Indabak, paella, espagetiak... edozein jatetxetako eguneko menuan aurki ditzakegun platerak euro batean ematen dituzte Iturgitxi kaleko 13. zenbakian. Baldintza bakarra jartzen dute: edaria edo kafea hartu behar duzu (eta ordaindu, noski).

Astelehenetik barikura, 13:00etatik 15:30era dasta daitezke krisiaren aurkako

menuak. Lehenengo platera euro bakarrean; bigarrena, aldiz, euro bi. Postrea hartuz gero bost euro baino gutxiagoren truke bapo bazkal daiteke, eta ez gara McDonalds-eko beherapenez ari. 2008ko abenduan hasi zen Marta Corral, jatetxeko jabea, ideia zorrotzen: *“Abenduan oporrak hartu genituen eta orduan bururatu zitzaigun horrelako zerbait egitea. Urtarrilaren*

«Baldintza bakarra kafea edo edaria hartzea da»

13an abiatu genuen ekimena, itxaropen handirik barik. Harrituta gelditu gara. Oso harrera ona izan du; jende asko hurrentzen da: langileak, gazteak, etxean bazkaria prestatzeko astirik ez duten bikoteak...”. Ekimenari esker lokalaren hipoteka ordaintzea espero dute. Lagunen bati bazkaria ordaintzekotan bazaude, Plentzian aukera merkea daukazu. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andres Cortina 2
ALGORTA



Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03
ALGORTA

AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



KALETARAKO TRAFIKOA MUGATUKO DUTE BARRIKAN

Barrikako kala natural bien izaera bere horretan mantentzeko asmoz, horietara sartzen diren kotxe kopurua mugatuko du Udalak. Juan Jose Ezpeleta alkateak, autoentzako sarbidea moztu eta oinezkoentzako edo bizikletentzako sarbideak soilik uzteko asmoa erakutsi du. Horrela, ingurune naturala zaintzeaz gain, uda partean Barrika inguruan ematen diren kotxe pilaketak ekidin gura ditu.

IKASTAROETAN IZEN-EMATEA ZABALIK

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak 2009-2010 ikasturterako prestatu dituen doako ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du. Mankomunitateak barne hartzen dituen zazpi herrietako batean errolatuta egon behar da ikastaroetan parte hartu ahal izateko. Orain arte eskuragarri jarritako eskaintzan, lorezaintzagaz eta nekazaritzagaz lotutako ikastaroak daude: xerolozaintza, terrazan ortua edo lorategia egiteko ikastaroa, lorategien diseinua, aldaxkak eta txertatzeak...

SAN PEDRO ERROMERIA EKAINAREN 29AN

Ekainaren 29an ospakizun berezia izango dute gorliztarrek. Izan ere, San Pedro eguneko erromeria egingo dute arrastiko 18:30etik aurrera Iberren. Egitarauan, dantzak, sardina jana eta txikiertzako berbena daude, besteak beste.

MANKOMUNITATEA

Bizikleta zerbitzua abian uztailetik aurrera



Bizikletak jasotzeko eta uzteko 13 leku egongo da

Bizimeta izena aukeratu du Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak uztailean abiatuko duten bizikleta zerbitzurako. Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizko lagunek erabili ahal izango dituzte bizikletak. Baldintza bakarrak adinez nagusi izatea eta, aldezturik, Mankomunitateko bulegoan, aipaturako herrietako Udaletan edo www.uribekosta.org web gunean izena ematea dira. Sei euro ordaindu beharko dira txartela lortzeko eta 0.90 euro bizikleta hartzen dugun bakoitzean.

Urte osoan egongo da martxan zerbitzua, goizeko 07:00etatik aurrera. Bizikletak hartzeko eta uzteko 13 puntu jarri dituzte; Plentzian, Plazatxon eta Erietxearen ondoan daude. Guztira, 113 bizikleta egongo dira, horietatik 20 elektrikoak. Puntu bakoitzean, informazio zutabea egongo da; erabiltzaile eta ordainketa txartelak sartu beharko dira. Hori egindakoan, bizikleta hartu ahal izango dugu. Ez dago aitzakiarik aldapan gora ez joateko! ○

Ekai. 22 - Uzt. 6

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Antzezaleak.** Algortako erakustaretoan. Ekainaren 22tik 26ra.
► **Gizatiar elkartearen pintura.** Erromoko erakustaretoan. Ekainaren 22tik 26ra.

ERANDIO

► **Ertibil Bizkaia.** Josu Murueta Kultur Etxean. Ekainaren 16tik 26ra.

PLENTZIA

► **Grandes exploradores.** Plentziako Butroiko Plasentia museoan. Urrira arte. Eguaztenetik domekara, 11:00etatik 14:00etara. Bariku eta zapatuan 17:00etatik 20:00etara.

GORLIZ

► **Helduen pintura ikastaroko erakusketa.** Erakusgelan. Ekainaren 26tik 28ra. 19:00etatik 21:00etara.

LEIOA

► **Requiem+Alfabeto+DMD Europa.** Marcel-ii Antunezen eskutik. Leioako erakusketa aretoan. Ekainaren 28ra arte.

ANTZERKIA

PLENTZIA

► **Gran espectáculo del Fakir Ha Sint.** Goñi Portalen. Uztailak 3, barikua. 20:00etan.



Jende mardoa batzen da kontzertuetan

► San Pedroak

Musika taldeak jaien protagonistak

Kontzertuak izaten dira Sopolako jaietako egitarauaren plater nagusienetakoa. Aurten adibidez, herriko taldeen zuzenekoak izango dira egunero, euren lanak ezagutzera emateko helburuagaz. Baina ez dira bakarrak izango eta ekainaren 25ean, jaien lehenengo egunean, alegia, Gironatik etorritako Kop taldeak herriko txosna gunea girotuko du bere hardcore punk eta thrash metal doinuakaz. Hurrengo egunean aldiz, Desmacaradas Kataluniatik zuzenean runba eta punka uzartzeko dituen taldeak musikagaz batera antzerkiz beteko du oholza. Azkenik, gertu gertutik, Mungiatik datorren Korrontzi taldea. Ekainaren 28an bere doinu tradizional-barrizailleez gozatzeko aukera egongo da.

• **Non:** Sopolako jaietan • **Noiz:** Ekainaren 25etik 29ra

MUSIKA

BERANGO

► **Musika Eskolaren entzunaldia.** Berangoeta Kultur Etxean. Ekainak 22, astelehena. 18:30ean.

GETXO

► **XXXIII. Nazioarteko Jazzaldia.** Algortako Biotz Alai plazan. Ekainaren 1etik 5era. 21:30ean.

► **II Getxo Sound Festival.** Algortako Biotz Alai plazan. Ekainak 26, barikua. 20:00etan.

ZINEMA

GETXO

► **Gaurik Laburrena.** Biotz Alai plazan. Uztailaren 6 eta 7an.

LEMOIZ

► **Ikusi-makusi.** Urizarko jolastokian. Ekainak 26, barikua. 19:30ean.

► **Rebeca Jimenez eta MClan.** Algortako Portu Zaharrean. Ekainak 27, zapatua. 22:00etan.

BESTEAK

URDULIZ

► **Udako Musika Tailerretan izena emateko epea zabalik.** Kultur Etxean. Ekainaren 22tik 30era.
► **Udaleku Irekiak 2009 hasieran.** Ekainak 29, 10:30etik 13:30era.

BERANGO

► **Pailazoak: Potxin eta Patxin.** Moreaga parkean. Ekainak 26, barikua. 19:00etan.
► **Umeen Bizikleta Festa.** Moreaga parkean. Ekainak 27 eta 28. Egun guztian zehar.
► **Haur parkea: jokoak, wii, puzgarriak, tailerrak...** Moreaga parkean. Ekainak 28, domeka. Egun guztian zehar.

GORLIZ

► **San Pedro eguneko erromeria: Dantzak, sardinak eta umeentzako "Kosmolariak" berbena.** Iberren. Ekainak 29, astelehena. 18:30etik 21:30era.

ERANDIO

► **Sukaldaritza eta apainketa ikastaroak.** Izena emateko data uztaileko lehen astera arte. 94 602 58 91 edo gazteinfo@erandioko-udala.net. 3-4 euro.

PLENTZIA

► **Umeentzako ludoteka.** Uztaila guztian zehar. 10:30etik 13:30era.

BARRIKA

► **Jon Deunaren IX. Nekazaritza eta artisautza azoka.** Ekainak 21, domeka.
► **Jon Deunaren Jaia.** Ekainak 24, eguaztena.

GETXO

► **Letren Terrazak.** Algorta eta Areetako geltokietan eta Bidezabalgo Sarria plazan. Uztailaren 1etik aurrera.

URIBE KOSTA

► **San Juan gaua.** Eskualdeko herri guztietan, urteko egunik luzeena ospatzeko jarduerak antolatuta dira. Ekainak 23, martitzena.

LEIOA

► **San Juan jaiak.** Ekainaren 24ra arte. Adin guztietako jarduerakaz, akelarrea, su artifizialak, puzgarriak...

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]



Getxo Blues XXI

Ekainaren 12,13 eta 14an ospatu zen Erromon Getxo Blues Jaialdiaren XXI. edizioa. Lonnie Brooks, Henry Butler, Kenny Neal, E. C. Scott, The Koko Taylor's Band, Johnny Mars, Belceblues eta Mike Hammer & The Taxi Drivers artistak pasatu ziren Santa Eugenia plazako eszenatokitik; horiekaz batera, hamar mila blues zale. Momentu hunkigarriak bizi ziren zendu barri den Koko Taylor abeslariari omenaldia egin ziotenean.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Arrune baserria

eta Athen itsasontzia

1974. urtean hartutako argazkia daukazu ondoko hori, Arrigunaga hondartza gainean. Arrune baserria da erdian ikusten duzun hori. Horren atzean, protagonismoa lapurtuz, Athen itsasontzia dago, erabat enkailaturik. Zaila izango zen itsasontzia handik ateratzea. Handia izateaz gain, ez baita erraza bertara heltzea. Gaur egun, "Atapuercako" nudistak batzen dira bertan; baita hondartzara txakurra eta gutzi joaten direnak ere. Agian, Athen-aren arrastoren bat aurki daiteke oraindino.

[berbetan]

Iñaki Bengoaren eta Osororen alboan Arrasateko Gose taldearen hirukotea osatzen du Ines Osinagak (ahotsa eta trikitia). Trikitia jotzen “kasualitatez, trikitixa zale zen lagun baten” eraginez hasi zela argi adierazi du 27 urteko arrasatearrak. Musika Hezkuntza ikasi eta Biokimikan dabil gaur egun, taldearen goranzko abiada biziak uzten dion heinean. Bost urtetan bi disko kaleratu dituzte, izen bakoak, azalaren kolore baltzagatik eta zuriagatik ezagutzen edo desberdintzen direnak. Musika elektronikoaren eta trikitiaren uztarketa da, oro har, beste taldeetatik ezberdin ditzakeena, ostera, egiaren gordintasuna islatzen duten letra zuzenek eta argiek (batzuek, barbarako Carlinhos Brownek, ulertu ez arren) ere margozten dute euren estiloa. Osinagak esan legez, “*On egin!*”

Ines Osinaga

Emakumea.Sexua.Askatasuna.Gose.

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Gose**

—Hasieratik hasiz, 2004an jaio zen Gose.
—Taldea sortu zen guk geneukan jakin-mina asetzeko. Iñaki musika elektronikoan buru-belarri sartuta zebilen, ni orduan oso trikitilaria nintzen, ez, ordurako ez, Ekonon ibilia nintzen, bukatu zenean hasi zen hau dena. Aspalditik bageneukan gogoia bi gauzak nahasteko; esan genuen ea tresna txiki honekin zenbat gauza egin ahal diren!? Beste barik, bertsinotxo bat eta beste bi kanturekin maketa grabatu genuen eta Oihukako Ritxiren eskuetara heldu zen. Ia egun batetik bestera, proposatu zigun Durangoko Azokarako diskoa ateratzea, eta gaur arte....

—Ekon ere oholtzara itzuli da.

—Niretzat Ekon eskola handia izan da, asko ikasi nuen: trikitixatik rock&rolle-rako saltoa, zelan soinu ekipoa ez daukagun guk muntatu behar, lau orduko erromeriak ez diren kontzertuak eman ahal direla, monitoreak zer ziren, eszenatokian trikitixa barik egoten... 2 urte inguru izan ziren, “potenteak”, kontzertu nahikotxo...

—Itzulera honetan zelan ikusten dituzu?

—Orain Ekonen kontzertuak behetik ikusten joango naiz. Ekonek bere momen-

tua eduki zuen, eta nago gauza bakoitzak bere momentua daukala. Ez nuen nahi izan tren horretara berriro igo, baina oso ondo iruditzen zait eurek nahi izatea. Zor-te ona opa diet; ni beste istorietan nabil...

—Gero, *Eutsi!* filmarena, tranpolin itzela!

—Sekulako zorrea-edo! Karamelutxoa! Hasiberriak ginen! Disko bakarra geneukan! Polita izan zen lana: gidoia bidali ziguten, irakurri eta guk geure pelikula “alternatiboa” egin genuen gure buruan; gure ikuspuntua eman genion abestiari. Bideoklipa grabatzearena, kristoren baliabideekin eta zinemako produkzio ekipobarekin Euskal Herrian ia ezinezkoa da, eta guk zorre hori eduki genuen. Bestalde,

“Teleberrietan kantu bakarrean “putakume” hamar aldiz esaten agertzea, hori bai gola!”

oso harrিতuta lotu ginen komunikabideek daukazuen eraginagatik. Herri honetan Teleberrien zure bideoklipa behin eta berriro agertzen bada, denak enteratzen dira zertan zabilzan; gero jendeak ikusiko du gustuko duen ala ez, baina komunikabide-

ak “lagun” izatea, edo oihartzuna emateak ate asko zabaltzen dizkigu.

—Bai filmak bai soinu-bandak bazuten zelanbaiteko garaikidetasuna. Hain ohi-tuta gaude euskal kultur produktuei...

—Halako puntu exotikoa ematen, ezta? Gaur are garaikideagoa izango zen; edo ez, gaur egun ez dut uste posible izango zenik gure herrian horrelako mobilizazio handi eta greba luzea egitea, ez daukagu erresistentziarik, hipotekak baino ez ditugu! Baina, polita izan zen. Guk pentsatutakoa baino “deskafinautxuagoa” urten zen pelikula, igoal, euskaragatik, “goenkaletuegiak” ditugulako gure produktuak. Baina, uste dut nahiko ausarta izan zela Albertok

zuzentzea zuzendu zuen moduan, eta defendatu gura zuen ideia nahiko “kañerue” zen; kantua ere bai. Pentsa, Teleberrietan kantu bakarrean “putakume” hamar aldiz esaten agertzea! Hori bai gola! Ez genien kantatzen “gure mendi politei...”.



—Gero **Carlinhos Brown**-egaz jotzea. —Gure bigarren ikonoa, zuek oso gogoko duzuen bigarren gaia! Hamaika aldiz erantzundakoa! Dagoeneko ez nau harritzen, hasieran, bai: Carlinhos Brownekin jo izana hainbeste inporta zaie? Guretzat inportantea izan zen, ez berarekin jotzearen istorioagatik, kristoren promozioa izan zelako baino. Asko harritu gintuen gonbidapenak, lehenengo diskoan badaukagulako abesti bat berari eskainia, baina ez da maitasun kanta! Kanta hori egin genuen ez dugulako sinesten saltzen duen istorio hori, kontraesankorra iruditzen zaigu: bere mundu utopiko hori, eta gero, Schweppesen iragarkian agertzea, edo Bilbon Movistarren eskutik. Baina sekulako esperientzia izan zen Espainiara joan ahal izatea biran Carlinhos Brown lako musikari batekin, horregatik jo ahal izan genuen Riviera ohian, eta beteta egon zen! Gero, horrek izan duen oihartzuna, etxean batez ere, egia da mami pixka bat badaukala. Biraren oso esperientzia polita gordetzen dugu, lehenengo aldia zen irteten ginela... Baina, musikari moduan berarekin eszenatokia konpartitzeak ez zigun ilusio handiegirik egin, ez da musikaririk atsegina. Beste batzuekin, adib. Fangoriarekin, konpartitzeak ilusio handiagoa egin digu, eta horrek ez du inolako oihartzunik izan! Argi dago, guri gauza batzuk interesatzen zaizkigula eta itxuraz, beste batzuei beste batzuk.

—**Orduan Fangoriak ilusio handiagoa?**
—Carlinhos Brown pixka bat ezagutzeko aukera izatean, atera genuen ondorioa hau izan zen: ematen duen itxura, halako “humanoa”, gizatiarra delakoa, bada ez da guk bizi izan genuena. Bestalde, Fangoriak, Alaskak berak zein taldeak ematen duten irudia askoz azalekoagoa, plastikozkoa dela ematen badu ere, harreman pertsonala askoz humanoagoa iruditu zitzaigun. Saltzen diguten irudiak eta apur bat eza-gutzean pertsonak zuri transmititzen dituztenak askotan ez dauka zerikusik. Gainera, Fangoriaren kantuak asko gustatzen zaizkigula, Carlinhos Brownenak ez bereziki!

—**Oraintsu, non eta Kurdistanen eskainitako kontzertua: berezia, bitxia...?**
—Oso bitxia izan da; urrun dago, bidaiagentzietako panfletoetan agertu ere ez da egiten, ia ezagutzen ez dugun herri bat, gatazkarekin lotutakoa... Jende askorentzat Euskal Herria moduan, ez? Hemen kontutakoarekin beldurtuta gindoazen: egoera txarrean daude, gatazka latza da, poliziak

“Carlinhos Brownekin baino, Fangoriarekin eszenatokia konpartitzeak ilusio handiagoa egin zigun”

indar asko dauka... Egia da! Baina ez genuen desberdintasun handiegirik ikusi Euskal Herriarekiko. Gero, kontzertua “pasada” bat izan zen! Jaialdi oso handia zen, kristoren azpiegiturekin, 50.000 lagun... Nik konparatzen dut “Hatortxu” batekin, baina handia eta kurdua! Atean poliziak, baina ziur Lakuntzara bidean ere denok kontrolean geldituko gaituztela! Berezia izan zen hainbeste jenderen aurrean esatea: “Gabon! Gose gara. And come from the Basque Country!” eta denak txaloka... —**Horrelakoetan, gainera musika bitarteko bada, hizkuntza ez da muga.**
—Hizkuntza, komunikazio tresna bat, ezin da sekula muga izan! Komunikazioa ez da inoiz muga. Mugak ipintzen dituztenak pentsatzeko modu batzuk dira. Ondorio horretara aspaldi heldu ginela. Irten ginen

“Kurdistango jaialdiko kontzertua “pasada” bat izan zen; gainera ez dute ba Eutsi-ren letra osoa kurdura itzuli”

lehenengo aldian, ez dakit Madrilera edo Cadizera izan zen -Kataluniakoak ez ditut kontuan hartzen, badugulako anaitasun historia hori- konturatu ginen askotan konplexua-aurreiritziak dituena gu garela, ez kanpokoak; gu garela sentitzen dugunak gure hizkuntza eta herri txiki honetan gelditu behar dugula, mundua Burgosen

amaitzen dela! Hori ez da horrela! Are gutxiago komunikazioaz, musika moduko komunikazio bide batez, hitz egiten dugunean. Pasa izan zaigu gure mezua hobeto ulertzea euskaraz piperrik ere ulertzen ez duten lekuetan, euskalduna dela dionaren aurrean jo izan dugunean baino! Mezua, mezua da, ulertu gura duenak ulertzen du. Noski, ez duenak euskara ulertzen ez ditu

letrak ulertuko, baina... Kurdistango periodiko batek elkarrizketa egin zigun, kontatu ziguten zelan Turkiako Gobernuak egunkaria itxi ziela-eta, guk sinesteko gaitz izango bazen moduan, eta guk “lasai, nahiko gertutik bizi izan dugu”. Kazetariak mezua bidali digu bere facebookean sartzeko gonbidatuz-eta, gitarra jolea sartu da —ni facebook eta halakoen guztiz kontrakoa naiz, jarrera aktiboa daukat horren kontra- eta esaten dit: “Ez du ba *Eutsi*-ren letra osoa kurdura itzulita eseki!”. Ez dakit zer ulertuko zuen... Komunikazioaren mende honetan hizkuntza ezin da muga izan. Kurdu batek ulertu du *Eutsi*-ren letra! Seguruenik nire bizilagunak ez du ulertuko hain ondo! Orduan, ahaz dagiguzan horiek konplexu guztiak, euskara, esan dugun legez, ez da gauza exotikoa, ez du egon behar kontestu

konkretu, ghetto batean sartuta. Joango gara eta esango dugu *Gabon!* edo *Buenas noches, bona nit, good night...* eta ulertuko dugu elkar!
—**Trikiti-rocka; trikitia-reggae; trikiti-elektronika. Tradiziotik garaiotara?**
—Guk ez dugu tradizioaren berrirakurketa egiten, ez dugu tradizioa modernizatu nahi.

Guri ez zaigu tradizioa gustatzen! Hori da gure lema. Gustatzen zaigu trikitixa, baina tradizioa ez! Guk beti esaten dugu tradizioa ez dena plazera dela. Ez dugu trikitixa jotzen tradizioagatik, plazeragatik baino! Ez gara sentitzen derrigortuta gure herriarekiko, ez gure nortasunarekiko, ez gure antzinakoekiko. Jotzen dugu sudur puntan jartzen zaigulako. Guri musika elektronikoa ere gustatzen zaigu, gaur egungoa da, oso gertutik bizi dugu; niri gustatzen zait Maurizia asko, eta era berean Chemical Brothers, Prodigy eta Garbage. Musika egiteko gure modua da, gure bizipenekin eta gure gustuen arabera! Nik Laja asko miresten dut, baina jotzen ikusi eta 10 minutura aspertzen naiz. Goseko abeslariak, kasualitatez, trikitia jotzen du; tresna txikia, erraza eta oso erabilgarria da, ez dago beste arazoirik! Baina ez dut jotzen nire aititeren soinua etxean dagoelako! Eta gure herrian hori da errealitatea! Baina ez gure kasua, nik lehenago eduki nuen Macintosh trikitia bat baino!
—**Ohitu gara andrazko abeslariak protagonista legez ikusten? Bestalde, Emakumea. Sexua. Askatasuna. Gose. Taldeari lot dakioken definizioari zer deritoxozu?**

—Gustatzen zait. Gose taldeagatik ala horien denen gose ote garela da? Halere, solte gustatzen zaizkit, batera gehiago; identifikatuta senti naiteke. Emakume abeslariak ikusten ohituta gaudela uste dut, ez horrenbeste emakume musikariak; are gutxiago, musika industrian, dena delako zirku honetan, batez ere eszenatoki atzean lan egiten duten neskak, hori kosta

“Guri ez zaigu tradizioa gustatzen, hori da gure lema; beti esan dugu tradizioa ez dena plazerra dela”

egiten zaigu. Pasa zitzaidan, kontzertutik 3 hile pasata, ordaintzeko eskatzeko deitu, haserre, eta entzun behar izatea: “jo! la chica esta que mala ostia tiene!”. Gure teknikaria emakumezkoa da, behin baino gehiagotan (ez dakit berak zer dioen) entzun dut “joe! traen tecnica de sonido y todo! ja, ja!” Noski, ikusiko duzue zein ona den! Ez da emakumea, ona da!
—**Zeren gose zarete?**
—Askorena, denarena! Hori da aurrera jarraitzea eragiten diguna; inkonformismoak, utopiak... Bizitzako alde denetan

izan behar dugu gauza berrien gose, hori da aurrera eginarazten gaituena. Askotan egiten didate galdera hori, beti lotzen naiz ez dakidala zer erantzun; orain jango nuke solomoa piperrekin, edo arrautza pare... —**Zerez aseta? Betiko galderez, ezta?**
—Bai! Carlinhos Brown... Serio; bizi ditugun injustizia askorekin! Pasibotasuna, erosotasuna... Horren denaren kontra egi-

tea nahi genuke, mundua ez da konponduko, baina, norbaiti pentsarazten badio, gustura egingo dugu lo!
—**Agian, pertsonalegia da... Zuzeneko batzuetan negarrez edo ikusi zaitugu; mina, baina, benetakotasuna, indarra...**
—Negarra, erdi izerditan... Bizirik nagoela da! Badaude momentu batzuk berezia dela negar egitea, kontzertu batean malkoa irteten bazaizu, uf! Berezia da kontzertu hori! Larrua jotzean moduan, malkoa irteten bazaizu... Energia kontua, badago ala ez! Dagoen bitartean, ondo gabilta! ○

aldizkaria **etxean**
jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tf. 94 491 13 37



Bat-batekotasuna

UK-ko aspaldiko lagun baten argazkiak ekarri dizkizugu oraingoan Fotografia atalera. Behin baino gehiagotan ikusi ahal izan dituzu gurean Juan Luis Markaidaren (Bilbo, 1957) irudiak. Lanbidez irakaslea bada ere, bizitza osoa daroa argazkiak egiten:

“Aitari kamara lapurtu eta argazkiak egiten hasi nintzen, nire belaunaldiko argazkilari gehienak bezala”. Gau eta egun argazki kamara aldean eroateak, bertsolarien teknika erabiltzen uzten dio: bat-batekotasuna. Ikusten duena harrapatzen du, besterik ez.

Argazkiak: **Juan Luis Markaida**









I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

Laburrak gaueko izar

Uztailaren 6an eta 7an (euskarazko filmak) egingo da Gaurik laburrena ekitaldia

Koldo Almandoz zuzendariaren *Columba Palumbus* (uso basatia) filmako irudia

Getxoko Kultur Etxeak aspalditik antolatzen duen Gaurik Laburrena ekitaldia uztailaren 6an (gaztelaniazko filmak) eta 7an (euskarazkoak) izango da aurten. Ohi legez, Biotz Alai plazak (22:00etatik aurrera) hartuko du film laburrei udalerriak eskaintzen dien aintzatespen ohol-tza. Egun bietan zehar 26 lan labur eskainiko dituzte, horietatik 11 euskaldunak. Horren albotik, film laburrak sustatzen dituen Kimuak ekimenen azken 10 urteotan parte hartutako filmik esanguratsuenak eskainiko dituzte aurten euskarazko laburrei begirako gauean (horietako zenbait ezagunak izango ditu Getxoko ikusleak).

Hala bada, emango dituzten gaztelaniazko filmak hauek dira: *Die schneider krankheit* (Javier Chillón); *El ataque de los robots de nebulosa-5* (Chema García); *Maquetas* (Carlos Vermut); *La maldición de los hombres triangulo* (Pablo Llorens); *Marisa* (Nacho Vigalondo); *Sin aliento* (Asier Iza); *Abimbowe* (Alex Montoya); *On the line* (Jon Garaño); *Pim, pam, pum*

(Andoni de Carlos Yarza eta Asier Urbietak); *18 segundos* (Bruno Zacharias eta Macgregor); *The werpig* (Samuel Orti Marti); *Cotton Candy* (Aritz Moreno); *Videoclub* (McGregor, R. Dominguez, J. Manzanegue); *Porque hay cosas que nunca se olvidan* (Lucas Figueroa) eta *Como conoci a tu padre* (Alex Montoya).

«Labur euskaldunen gauean Kimuak ekimeneko azken urteotako esanguratsuenak emango dituzte»

Halaber, uztailaren 7ko euskarazko lanak, ondokoak dira: *Txotx* (Asier Altuna eta Telmo Esnal, 15 min); *Sarabe* (Beatriz de la Vega, 15 min); *Hauspo soinu* (Inaz Fernández, 16 min), *Hilarri* (Manu Gomez, 8 min), *Belarra* (Koldo Almandoz, 10 min), *Dortoka ubartea* (Maru Solores, 16 min), *Topeka* (Asier Altuna, 4 min) *Lepokoa* (Safy Nebbou, 23 min), *Amuak* (Koldo Almandoz, 9 min), *Sarean* (Asier Altuna, 5 min) eta *Columba Palumbus* (uso basatia) (Koldo Almandoz). ○

Jazza, uztailaren 1etik 5era

Joan barri den blues jaialdiari lekukoa hartuko dio laster **XXXIII. Getxoko Jazzaldia**



Chano Dominguezek Paquito D'Riveragaz joko du uztailaren 5ean

Blues jaialdiari hartuko dio lekukoa XXXIII. Getxoko Jazzaldia, uztailaren lehenengo astean, eta era berean, Euskadiko Jazz Zirkuitoari ere hasiera emango dio. Hala, iragarri legez, hurrengoak dira egunegongo diren kontzertu nagusiak: Diane Schuur "jazzaren lehen dama" (hilak 1), Omar Osa perkusio jole kubatarra buru duen Afreecanos Quartet taldea (hilak 2), Getxoko Jazzaldira bigarren aldiz hurreratu den Michel Camilo piano-jole dominikarra (hilak 3), R&B, funk eta pop doinuak nahasten dituen Spyro Gyra taldea (hilak 4), eta azken egunean kontzertua

eskainiko duen Paquito D'Rivera eta Chano Dominguez bikote entzutetsua buru duen Latin Quartier taldea. Baina hori baino gehiago da jazzaldia: Talde Lehiaketako taldeen emanaldiak, Hirugarren Milurteko kontzertuak, dixie gunekoak etab. Sarrerak salgai daude BBKren kutzazaintan eta webgunean eta Algortako kultur etxean (sarrera arrunten prezioa: hilaren 1ean 15 euro; hilaren 2an 12 euro, hilaren 3an 25 euro, hilaren 4an 15 euro, hilaren 5ean 25 euro; orotarako txartela 70 euro). ○

Informazio gehiago: jazeuskadi.com
94 4310310 (sarretarako)

diskoak

4
Sei Urte
Baga Biga



Energiaz beterik dator Berrizko laukotea bere bosgarren diskoagaz. Bizkaitarrek hiru hilabete eman dituzte lana grabatzen. 4 hamaika abestik osatuta dago eta pop eta rock doinuak dira nagusi, bere jatorrietara bueltatu dira eta letrei dagokienez, eguneroko bizitzan gertatzen diren gauzei egiten diete aipu.

Hoy es siempre todavía
Set
Baga Biga



Talde bermeotarrak bere lehenengo diskoa kaleratu du. Rockaren alderik rockeroena erakutsiz, Set taldearen errealitatea egunerokotasunean eta lan egiteko gogoan islatzen da eta, hortik, kantek pertsonen eguneroko sentimenduak adieraztea, maitasuna, gorrotoa, lagunak... Abesti guztiak gaztelerez daude.

Oztopo Guztien Gaine...
Pog Mo Thon
Gof



"Pog Mo Thon"-ek lan barria kaleratu du. Mungiako taldea idazle zein poeta gazte inguratu da, diskoa hitz sendoz biribiltzeko. Lan barriak 12 kantak osatuta dago eta Arkaitz Estiballes edo Gotzon Barandiaran, izan dira, besteak beste, idazleak. Soinu sendoa eta abesti hurbilak dira taldearen nortasuna markatzen dituen ezaugarriak.

EHZ jaialdia >

uztailak 3-5

Heletan (Nafarroa Beherea) izango da aurten Euskal Herria Zuzenean jaialdia, uztailaren lehenengo aste akabuan. Hamaika ekitaldiren artean, musika kontzertuak dira benetan gazte andana erakartzen dituztenak, hala aurten Heletan egongo diren taldeak ondorengoak dira: Beat torrent, Borrokan, Che sudaka, Deabruak teilatuetan, Des-Kontrol, DJ Blue, DJ Madgic, Emir Kusturica & the No Smoking Orchestra, Fiachras, Hurmuroa, Mikel Hats, Moskorri, Puppet mastaz, Sébastien Schuller, Seun kuti and Egypt 80, The Bellrays, The Congos, The Sparteens, Wankin Noodles, We are standard getxoztarrak, Willis drummond, Zezenaren taldea eta Zura.

Informazio gehiago:
www.ehz-festibala.com

kontzertua >

Bizardunak Sopelan

"Folk radical Vasco, Nafar herri (hiri) kanta berriak" definizioagaz lotzen dute Bizardunak taldean euren burua. Adierazi dutenez, "Gu garena gara!" oihukatzean diskoaren esentzia aldarrikatzen dugu; Kubako sierra maestrako "barbudos"-ak bezala, maitatzen ditugun dubliners taldeko musikariak bezala, Zumalakarregi eta Santakruz apaizak bezala. XIX.eko "benetako gizonak". Bigarren diskoan adieraziko dugun kanta baten hitzetan: "Ur, zur eta lurreko gaur egungo fededunak, gautxori rokerok". Euren proposamena ezagutu gura duenak Sopelan hilaren 28an (txosnak) izango du aukera.

Informazio gehiago:
myspace.com/bizardunak

etorri
eta
ikus!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalegaz bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm
fm 107.8
Gaitz Inbilita

[liburuak]

Arte eta kultura ikastaroak

Egungo ipuingintza izango dute berba-gai jardunaldiotan **uztailaren 1etik 3ra** Bilbon

EHUK antolatzen duen X. Bilbao Arte eta Kultura udako ikastaroen barruan, aurten 26 ikastaro-lantegi eskainiko dituzte, ohi legez arte eta kultur arlo ezberdinen gainekoak izango dira, besteak beste: arte eszenikoak (teknikoak), zinea-arte eszenikoak-literatura, musika, arte-teknologiak-museoak, gizarte gaiak, hezkuntza eta komunikazioa eta dantza. Ikastarook oro har Bilbon emango dituzte (Euskalduna Jauregia, Guggenheim, Bilbaoarte, Juan Crisostomo de Arriaga Musika kontserbatorioan, EHU-BBK etxea eta Sarriko parkeko EHUren etxeetan), baita Leioako campusean, Basaurin (Sozial Antzokia), Mungian eta Gueñesen ere.

«Garaiko euskal ipuingintza; adituak eta idazleak; katalan ipuingintza etab.»

Literaturari dagokion ikastaroon esparruan, Egungo Ipuingintza izango dute berba-gai jardunaldiotan 1, 2 eta 3an (09:00-14:00; Sarrikoko Zubiria Etxea). Antolatuzaileek adierazi dutenez, ikastaroaren helburuak hauek dira: *“gaur egungo euskal ipuingintzaren azterketa egitea; garaiko ikur izan diren ipuingileen lanak irakurriko dira, garai bi kontuan hartuz: bata, 80. hamarkada (Joseba Sarrionandia eta Bernardo*



Ur Apalategi, hizlarietako bat (Argazkia: Zaldi Ero)

Atxaga), bestea, 2000. urteen ingurukoa (Ixar Rozas, Iban Zaldua, Jokin Muñoz etab.). Horretarako euskal idazleak gonbidatu ditugu eta ipuingile katalanak ere izango ditugu gure artean; hala, elkarrizketa sakona abiatu nahiko genuke ipuingintzaren izaeraz ere bai”. Ikastaroa eskainiko dutenen artean unibertsitateko irakasleak eta idazleak daude: Jon Kortazar, Alvaro Rabelli, Ur Apalategi, Javier Rojo, Angel Erro, Jokin Muñoz, Eider Rodriguez, Marius Serra eta Lolita Bosch. Izena emateko epea hilaren 30ean amaitzen da (ikasle-langabetuek 50 euro, gainontzekoek 100 euro). ○

Informazio gehiago: www.bak.ehu.es

liburuak



Erojugilea
Asier Serrano
Txalaparta

Pertsonak, autoak... denak geldi daude infinitua dirudien argazki batean. Eredu mortu horretan, aldiz, aske mugitu ahal izango da nobela honetako protagonista, erojugilea. Iraganagaz hainbat kontu kitazeari ekingo dio hiriburutik alde egitea.



off-on
Yolanda Arrieta
Erein

Bizitzaren gaineko narrazioak, gogoetak eta poesiak batu ditu Arrietak liburu honetan. Idazlearen baitan gertatzen ari den garapenaren ibilbidea erakusten du. Zaila da askotan manualik barik eman diguten bizitza honetan aurrera egitea.

[kirola]

Seven tokata txapelketa

Errugbi taldekoek herritarrei, eta kirol zein lagun taldeei parte hartzeko gonbita egin diete



Seven Tokata txapelketa-jai iragartzen duten horma-irudia

Eguzki amandrea berotzen hasi da eta horrek askori sasoi barraren sarrera dakarkio burura, oporraldia, uda... Ostera, horrek guztiak beste sasoi bat agurtzea ere badaroa beragaz, eta hala, urte osoan izerdi patsetan ibilitakoek, pozik ala kopetilun, kirol denboraldiari agur esan behar diete.

Helburu horregaz, urtero Getxo Errugbi taldekoek Seven Txapelketa (zelai erdian jokatzen den zazpiko partida) antolatzen zuten, bertan batzen ziren lagunartean hamaika errugbi taldeko jolakariak eta adiskideak. Aurten barrikuntza legez, txapelketa zentzu barria eman gura izan diote eta “herri osoari, beste kirol taldeei zein lagun taldeei” ekimenean parte hartzeko gonbita luzatu diete. Iragarri dutenez, min hartzeko beldurra urrunarazi guran-edo, aurtengo txapelketa “tokata” moduan jokatuko dute, hau da, plakaketak debekatuta daude eta jokalaria harrapatzeko ukitu baino ez da egin beharko.

Txapelketa hilaren 27an (16:00) egingo da Faturako zelaian eta ostean, eurek esaten duten legez, hirugarren zatia jolokatuko dute,

jai prestatu dute-eta: garagardo eta pintxo jan-edana, musika... (Faturako garagardotegia izandakoan). Seven Tokata Txapelketan parte hartu gura duen kirolari zein lagun talde izena eman dezake eguna baino lehen Kantxa Kirol Moda eta Sustrai zein Baserri tabernatan, edo egunean bertan Faturan.

Bestalde, ez da barritu guran Getxo Errugbi taldeak egingo duen aldaketa baka-

«Txapelketa zazpiko taldetan eta zelai erdian jokatzen da; debekatuta dago plakatzeara»

rra. Izan ere, gutun bidez azaldu dutenez, *“denboraldia ez da gura bezain ondo joan, baina datorrenari begira gaude, gogotsu; eta aro barria dator, klub barria, Getxo Errugbi talde barria; bide horretan zure laguntza ere eskertuko dugu eta gure ateak zabalik dituzte. Urteotan guztiotan, ziurrenik, desadostasunak izan ditugu, baina denok, bai zu zure kirol jardueratik eta baita gu ere guretik, kontu beraren alde gabiltza lanean, herriaren, gure neska-mutilen eta guztiiontzako kirolaren alde”.* ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVICIO



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Hamaika Bilbo Telebista > badugu euskarazko telebista barria!

“Telebista parte hartzailea gara; herritarren eta elkarteen ekarpen egarriz”



Hamaika Bilbo Telebistako lan taldea

Etxeko sofán etzanda zaudela mandoa hartu eta telebista piztu duzu. Zappinga egiten hasi eta hara non aurkitu duzun katea barria euskaraz! Hamaika Bilbo Telebistak hiru hilabete daroa Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) bitartez emititzen. Ekainaren 15etik, Euskaltel bidez ikus daiteke Bizkaia osoan. Gure inguruan gertatzen denaren barri emateaz gain, mikrosaiok, euskal pilota eta filmak ikus daitezke.

—Zelakoa da Hamaika Bilbo Telebista?

—Telebista euskalduna da, %100 euskaraz emititzen dugu. Komunikabide gaztea dela esan daiteke, gure programazioa 18 eta 40 urte bitarteko jendeari zuzendua baitago batez ere. Hala ere, edonork gustura ikus dezake Hamaika. Bestalde, parte hartzailea da; herritarren, elkarteen, kolektiboen eta bestelakoen ekarpeni harrera egiten diegu, eta asko eskertzen ditugu. Baten batek proposamenik badauka, hurrera dadila! Azkenik, oso garrantzitsua da esatea telebista txikia dela, lekukoa. Txikia izateak, beste komunikabideetan agertzen ez dena era-

kusteko aukera ematen digu; hori da gure abantaila eta gure nortasunaren zutabe garrantzitsuenetakoa.

—Zer ikusi ahal izango dugu?

—Alde batetik gure ekoizpen propioa daukagu eta, bestetik, tokiko telebista saretik jasotzen duguna. Ekoizpen propioan, astelehentik barikura emititzen den *Bat eta Bat* magazina da nagusi. Horretan, Bilboko eta inguruko herrietako albisteak, elkarrizketak eta erreportajeak ikus daitezke; baita kirol saio berezia eta gizarte eta politika mahai-ingurua ere. Honez gain, mikrosaiok ditugu, gai ezberdinak lantzen dituzten

saio laburrak. Musika, eskulanak, literatura, zinea, moda... gure kolaboratzaileek denetarik ekarriko digute. Asteburuko pilota partidak eta zine klasikoa ere izango dugu. Zinema, bertsio originalean botako dugu, euskarazko azpituakaz, baina hori irailetik aurrera izango da.

—Non eta zelan ikus daiteke?

—LTD-ren bitartez 23. kanalean ikus daiteke Bilbon, Basaurin, Galdakaon, Etxebarrin eta Arrigorriagan. Hori da gure demarkazioa; baina, beste zenbait txokotan ere ikus daiteke, Getxon eta Txorierrin adibidez. Dena den, Euskaltelen bitartez

«LTDn 23. kanalean ikus daiteke eta Euskaltelen bitartez, 11.ean»

Bizkaia osoan ikus daiteke, 11. kanalean.

—Web orriak badaukazue?

—Bai, noski. www.hamaika.tv orrian gure eguneroko programazioa kontsultatu ahal izateaz gain, bideorik onenak eta mikrosaioen laburpenak aurkitu ahal dituzte gure ikusleek. Bideo arrakastatsuenak sartuko ditugu, eguneko saioan telebistan ikusi ahal izan ezin dituztenak ikus ditzaten.

—Etorkizunari begira zer asmo daukazue?

—Epe laburrean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban ikusi ahal izango dugu Hamaika Bilbo Euskaltelen bitartez. Honez gain, gainontzeko Hamaikak martxan jartzen joango gara apurka-apurka: Donostia, Durango, Gasteiz... Euskal Herri osora heltzea da gure helburua; kasu batzuetan gure egoitzen bitartez (aurretik aipatutakoak), beste batzuetan, zenbait tokiko telebistagaz egin edo egingo ditugun hitzarmenen bitartez, Baztan, Etxalar eta Aldudeko telebistakaz adibidez. Bestalde, guk ekoiztiko eduki kopurua handitze-ko asmoa daukagu. o

bai Euskarari Ziurtagiria
balioa eta berrikuntza · valor e innovación

ERANDIO
ARLAN

DONOSTIA
NEKATUR

AGURAIN
ZADORRA - ETXEA

HENDAIA
SOKOA

IRUÑEA
ELKAR

IURRETA
IURRETA INSTITUTUA

GASTEIZ
MENDIA OPTIKA

1.600 entitate baino gehiago ziur daude

ziurtagiriaren elkartea
902 430028 **bai**
baieuskarari.org

[nire bazter kuttuna]

Ana Telo > Ereagako itsasargirako ibilbidea

“Hemendik, itsasoa ikusteaz gain, bazter kuttun asko ikus ditzaket”



“Oroipen ederrak datozkit burura eta gogorapenagaz batera itsasoko kresalaren usaina eta olatuen aldizkako zarata”

Pedro Bilbao medikuak, Ereagako hondartzako ibilbidean monumentua daukanak, leku hau aukeratzen zuen edozein gaitasunetarako sendagai onena zela uste baitzuen, eta zaharrei zein gazteei paseatzea gomendatzen zien beti. Zaila da bazter bakar bat aukeratzea, baina bat aukeratzeko hau dut gurago. Izan ere, nire gurasoek, Leioan bizi arren, hona etortzeko ohitura hartu zuten aspaldi. Artean, leku honetan hainbat lagun talde elkartzen ziren eta arrasti osoa ematen zuten itsasar-

girainoko joan-etorriko ibilbidea behin eta berriro egiten, hizketan edota batzuetan, nire aitari gehien gustatzen zitzaion zaletasuna betetzen: arrantzan. Nik aita eta ama zoriotsu ikusten nituen udako arrasti luze horiek lagunakaz partekatzen eta irudi horiekaz geratu gura dut. Oroipen ederrak etortzen zaizkit burura, eta gogorapenakaz batera itsasoko kresalaren usaina eta olatuen aldizkako zarata.

Zoritxarrez, aita orain gaixorik dago eta gupil-aulkiagaz ezin gara ibilbidera igo,

baina askotan gune honetara ekartzen dut. Halakoetan bere begietan zerbait pizten dela nabaritzen dut, eta bere aurpegiak erakusten duen lasaitasunak pozten nau benetan. Hori dela eta, niretzat oso berezia da leku hau eta senarrak eta biok hona etortzeko ohitura bera daukagu. Aspaldian, txikiak izanda semeakaz, eta orain “Kora” izeneko gure txakurrakaz etorri ohi gara. Gainera nik Algorta itsasoagaz lotzen dut eta hemendik itsasoa ikusteaz gain, Algortako bazter kuttun asko ere ikus ditzaket. o

[norajoan]

Rumore

Hondartzara bidean gosea asetzeko



Carolina Herrera, Rumoreko atarian

Uda heldu da eta horregaz batera hondartzara denboraldia. Egun eguzkitsu luze hauetan, uretan orduak eman eta gero gosez amorratzen gaudenean, Larrabasterran badago tripazorriak non ase. Rumore jateak 2008ko abenduan zabaldu zituen ateak, nahiz eta, aurretik, antzeko eskaintza zuen beste lokala zegoen bertan. Carolina Herrerak zuzentzen du gaur egun; askok ez zuten sinesten martxan jartzeko gai izango zenik eta horregatik aukeratu zuen izena: “*Treki baino hilabete batzuk lehenago lagunak kuxkuxean ibili ziren, abendunako irekitzea ezinezkoa zela esaten zuten. Abenduaren 20an zabaldu nuen; horregatik jarri nion Rumore, zurrumurruen omenez.*”

Bertan jateko zein etxera eroateko otartekoak, hanburgesak, sandwichak, anoak eta plater konbinatuak daude aukeran: “*Arrakasta gehien duen platera Rumore*

entsalada da; denetarik dauka: tomatea, sagarra, chatka, urdaiazpikoa...” Horrez gain, eguneko menuak eskaintzen dituzte prezio onean. Udari begira promozio bereziak jarri gura ditu Herrerak, 2 eroan eta 1 ordaintzekoa, besteak beste. Kafe karta luzea daukate, urruneko zaporeak hurreratzeko balio duena: irlandarra, jamaikarra, frantziarra...

Egunero dago zabalik Rumore, goizeko 08:00etatik gaueko 24:00ak arte: “*Eguazten arrastian baino ez dugu ixten.*” Ez zaie inoiz jenderik falta: “*Ezagun asko etortzen da, betiko bezeroak. Orain dela lau urte bemen egin nuen behar eta gehienak ezagutzen ditut. Horrez gain, hondartzara ogitartekoa eroan gura dutenak hurbiltzen dira.*” Udako hila-beteetan terraza zerbitzua daukate. o

Loiola Ander Deuna 44, LARRABASTERRA
Tf. 94 676 55 48



ARTAZA ETXEA
jatetxeaa
• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TF./FAX: 94 491 34 91
MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

Toponimoa > Ereaga

Ereaga :

Ereagaren aipurik zaharrenak bertako harrobiak zirela eta ditugu. Antzina jendeak ez zuen hondartzara joateko ohitura handirik eta modan jarri arte gehien bat bertan agertutako hildakoengatik aipatzen da leku hau. 1878an Getxon zeuden iturriak konpontzeko espediente ireki zen eta Ereaga hondartzatik gertu iturria eraikitzea eskatu zuten. Konpondu behar ziren iturrien artean Ereaga izeneko zegoen. Ereagako hondartzan bainuetxea egiteko asmoa zegoela eta jendea bainatzen den lekutik harriak ateratzeko itsas beherak aprobetxatuz, baimenak ematen hasi ziren. Ereagako plazan, iturri eta bidexka artean bainuetxea eraiki zutenean, eremuak 126 metro koadro zituen eta La Perla izena eman zioten. Bainuetxe honetan ura, hasieran itsasokoa, berotzen zuten. 1912an itxi zuten balneario barria, Igeretxe, eraikitzen hasi zirenean. (...) Hondartzara eguzkitan egotea modan jarri zenetik, eta Areetakoa zikinegi egotearen ondorioz jende asko hasi zen trenaz etortzen eta Las Arenas izeneko geltokian jaisten zen, ohikoa da Bilbon jendeak “playa de las Arenas” honi deitzea. Izenaren osagaiak are hitza eta -aga atzikia izan daitezke.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa



URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



galdaretxe

• Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
• Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
• Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Aritluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Cozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Kitto! Heldu da uda, hondartzara joateko irrikan zeundela eta lana zela, eta ezin izan zarela lehenago hurreratu. Orain denbora soberan izango duzu eguzkia gura beste hartzeko, baita aspertzeko ere.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Lagunak oporretan eta zu lanean burua altxatu ezinik. Beti ezin duzu gura duguna lortu, batzuetan etsi behar duzu. Zuk pentsatu baino lehen ondo pasatzeko denbora ere izango duzu.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure inguruko norbaitek umea izango duela esan dizu eta dagoeneko, opari bila hasi zara. Oso pozik zaude, aspaldi ez duzu horren albiste atseginik jaso.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Dagoeneko desiratzen zaude urteko lehen bainua hartzeko, eguraldi ona egin duen arren, ilobak zaindu behar izan dituzu eta horrek denbora nahikoa kendu dizu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Bikoteak utzi eta zure buruagaz nazkatuta zaude. Ez da zure errua, horrelakoak uste baino gehiagotan gertatzen dira. Hasieran txarto pasako duzu, baina laster ahaztu eta egoera barriak ondo pasatzeko denbora gehiago eskainiko dizu.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zure lagun batek albiste txarra emango dizu eta buruari bueltaka ibiliko zara. Batzuetan egoerak ez dira errazak eta datozen moduan hartu behar dira. Hala ere, jende asko izango duzu alboan laguntzeko prest.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Azterketak amaitzeko zorian zaude eta ezin duzu gehiago, nekea gero eta nabariago da. Animo! Azken astea da eta. Ez etsi, zenbat eta lan gehiago egin gero eta lasaiago ibiliko zara udan.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Aspaldi honetan haserre zaude zeure buruagaz eta besteakaz ordaintzeko joera duzu nahiz eta ez duzun asmo txarragaz egiten. Kontuz ibili eta ingurukoak zaindu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Azkenean gura zenuen kontzertu horietara joateko falta zitzaizun denbora hori lortu duzu. Lankide batek turno aldatu dizu eta. Beraz, animo eta berandu baino lehen zoaz sarrerak erostera, osterantzean agortuko zaizkizu eta.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Lantegian hiru pertsona kalera bota gura dituztela eta, nahiz eta hiru urte enpresan lanean ibili, zu izan zara azkena sartzen. Ez egizu buruari buelta lar eman, askotan harritu ere egiten gara erabakiakaz.

IRAT- ZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)
Urte osoa lan eta lan eman ostean, oporretan bidaia egiteko gogo handia daukazu, baina inor ez da animatzen. Agian bakarrik joatea ere ez litzateke ideia txarra izango, gainera, zuk erabakiko zenuke zelako bidaia egin.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Aspaldi hasi zinen dietan eta dagoeneko aldaketak nabaritu dituzu, jendeak ere asko argaldu zarela komentatu dizu. Ondo dago, baina kontuz, kilo lar galdu barik.



KOSKA
irratia 108 fm

www.koskairratia.com

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1						■				
2						■				
3						■				
4				■						
5								■	■	■
6	■	■	■							
7							■			
8										
9										
10										

Ezker eskuma

1. Ardura. Oinari. 2. Gartsu, sutsu. Lursail. 3. Ogi egilea. Indian, printzeri edo erresuma burujabe bateko burusagi nagusia. 4. Errepikatuz, kolpearen onomatopeia. Betseinak, begiaren erdiko beltsuneak. 5. Sao Tome eta Printze errepublikako hiriburua. 6. Saio. 7. Nabar. Zain, aiduru. 8. Argi izpi. Dokumentu. 9. Frantziako eskualdea. Laruak ontzeko gaia. 10. Garaia, aldia. Behien arbasoak.

Goitik behera

1. Txindorek eragindako hots. Asko. 2. Idorra, lehorra. Norbait. 3. Arrunt. Itsas hegazi. 4. Behar, egiteko. Enperadore erusiarra. 5. Nafarroa Garaiko herri bateko. 6. Imitazioa egin. 7. Barrunbea, barruko aldea. Su.. 8. Pozik, kontent. Lanbro. 9. Lekadunen familiako urteko belar landarea. Sosa, txanpona, mone-ta. 10. Moduak. Atomo kargadunak.

Soluzioak

K	V	O	R	U	■	V	O	R	V
V	U	N	V	T	■	R	I	O	L
I	R	I	G	V	■	R	V	N	I
O	I	V	■	T	R	A	K	P	I
I	D	I	V	A	■	S	■	■	■
■	■	■	E	M	O	T	O	S	A
K	V	I	N	I	N	■	K	O	T
V	V	H	■	V	N	I	■	O	K
R	O	L	V	A	L	O	H	S	S
E	B	A	S	E	■	A	X	O	L

asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- "Sukalde kontuak" filma zuzendu barri du
- Aktore lanetan ere ikusi ahal izan dugu
- Iloba ezaguna dauka

> Aurrekoaren erantzuna: Benito Lertxundi.
> Irabazlea: **Urtzi Martinez***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidalai erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean degustazio menua zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf. erreserbak: 94 460 64 13



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



*PETISO'K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

"LOS TANGOREÑOS" KARTOIZKO BANDA, SONDIKA 1967

Urte bi lehenago Algortako Alango auzoko jaietarako (San Juan jaiak) sortua; auzoko mutilakaz hasi zen banda, baina geroago neskak ("majorettes") gehitu zitzaizkien. Banda mistoa, beraz. Uribe Kosta osoan zehar ibili ziren (1965-70) jairik jai (argazkia Sondikako jaietakoa da) baina beraientzat ekitaldirik garrantzitsuenak Fadurakoa izaten zen, urtero ehiztariek eta arrantzaleek elkarren aurkako partidari, egiten zuten erakustaldia futbol zelaian. Bost urte edo iraun zuen banda honek "Petiso" ren lanari esker, denetik egiten baitzuen honek, bandaren sortzailea izateaz gain: zuzendari musikala, koreografoa... hori duk hori! ○

Atzetik hasita, ezkerretik eskumara:

- 1. Ierroa:** Torrijos, Avelin, Goitia, Pahiño, Alberto, Piki, Mancisidor, Juan, Anchia, Manzarraga.
 - 2. Ierroa:** Fullaondo, Arri, Chanito, Chema, Martin, Pedri, Miguel, Napoleon, Antolin, Uria, Cesar.
 - 3. Ierroa:** Arruti, Laiseka, Motagoitiko, Lauritxu, Punchito, Jose Lejarraga "Petiso" (zuzendaria), Soroa, Pitracca, Etxeandia.
- Argazkian ez daudenak:** Puchades, Rogelio, Chacari, Basozabal, Piden, Teneria, Sedano.

[aitormenak]

ITZIAR ITUÑO > Aktorea

“Batzuetan foiletoietara ere engantxatu izan naiz”

Testua: **Ainhoa Lores**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Burugogorra eta ona.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Gidoia eta istorioa onak badira, edozeinetan. Ez daukat lehentasunik.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Aititerentzako “La Gaceta del Norte” erostera beheko kioskora joaten nintzela eta domeketan hemengo taberna batera ere La Casera erostera.

Ohitura txarren bat badaukazu?

Gustuko ez ditudan gauzak gerorako uztea. Luzatu eta luzatu egiten ditut.

Aitor dezakezun bizio bat.

Kafea eta foiletoietara ere engantxatzen naizela batzuetan.

Barrero egingo zenukeen bidaiarik badago?

Bai. Boliviara joango nintzateke barrero eta pertsona beragaz gainera, nire lagun Soniagaz. Oso bidaia polita eta harreman ona izan genuen.

Gehien gorroto duzun topikoa?

Emakumeok txarto gidatzen dugula entzutea. Esaten dutenak matxista hutsak direlako.

Abesti edo musika talde gustukoena?

Asko ditut gustuko... Su Ta Gar, Mikel Urdangarin, Berri Txarrak, Fermin Muguruza... talde euskaldunak gehien bat.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Asmo txarra. Batzuetan, gauzak inkontzienteki egiten direnean eta mina ematen digutenean barkagarria da, baina asmo txarrez egindakoak ez.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Azken aldian kotxe barik, gora eta behera ibili behar izaten naizelako, Donostiara dela, antzezkiuna daukadala... o

LABURREAN— Nork ez du ezagutzen dagoeneko Goenkaleko Nekane? Itziar Ituño (Basauri, 1974) dugu ertzain honen paperari bizitza ematen dion aktorea. Bizkaitarrak urte mordo daramatza Euskal Telebistako lehenengo kateko telesailan lan egiten, baina hori ez da oztopo izan zineman edo antzerkian ere lan egiteko. “El final de la noche” edo “Agujeros en el cielo” filmetan, besteak beste aritu da. Telebistan, “Agur Olentzero, agur”, “Platos sucios”, “Ander eta konpainia” edo “Kilker dema”-n ikusi ahal izan genuen. Antzerkian barriz, Ituñok “Jostailuen gela”, “Hiri Basatia” edo “Grönholm metodoa” obretan lan egin du.

EUSKARA, MERKATARITZARA ZERBITZU-GUTUNA



ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

ITZULPEN ZERBITZUA gehi@getxo.net

Urte osoan eta doan. Zure kartelak eta idatziak euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala.

MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu aukeran.

“DENDAKETAN” EUSKARA IKASTARO LABURRAK

Bezeroei arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen %100 itzuliko dio.

MATERIAL SORTA INTERESGARRIA

Euskaraz edo ele bietan eta DOAN. “Zabalik/ Itxita”, “Merkealdia”, “Eskaintza bereziak”, “Erreklamazio-orriak eskuragarri”, “Gabonetako loteria”. “Udako ordutegia”, “Oporretan gaude”, inprimakiak (fakturak, ordainagiriak...).

EUSKARA BIZI

HEMEN ERE EUSKARA BIZI leloa duten mahai-gainekoak, kartelak...

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

EGIN ZURE ESKAERA



94 415 22 52



gehi@getxo.net



XXXIII GETXO JAZZ

UZTAILAK 1-5 JULIO 2009

PLAZA BIOTZ ALAI ALGORTA 4-21:30 h.

DI4.1 TOBIAS MEINHART QUARTET (SUIZA)
DIANE SCHUUR

DI4.2 VIGALE-MAGATELLI-WINDFELD TRIÓ (DINAMARCA-ITALIA)
OMAR SOSA "AFREECANOS" QUARTET

DI4.3 POINTS (REPÚBLICA CHECA)
MICHEL CAMILO TRIÓ

DI4.4 BIOTONE (POLONIA)
SPYRO GYRA

DI4.5 GANADOR DEL CONCURSO DE GRUPOS
PAQUITO D' RIVERA &
CHANO DOMINGUEZ
QUARTIER LATIN

📞 944 914 080 • info@getxokultura.com • www.getxo.net

